



## **DROGAK, FESTAK ETA AZPEITIA**

Era askotako drogak hartzen dira herrian, batik bat festetan (24-27)





21 sukalde eredu eta xehetasun guztiak



aukera zabala mahaietan

## zure neurriko prezioak



estilodun bainugelak



hamar eredu hamaika armairu aukera



Imanol Amiano 'Gara'-ren inguruan hizketan (13)

Azpeitiarrak presoen aldeko baraualdian (20-21)



Ehun urte Tourrak, eta Azpeitiko txirrindulari bat (39)




Eli San Sebastian, Zaragozan (46)

uzfarria

1983ko abuztuaren 26a, ostirala, Euskal Herriko lekua askotan uholdeak. Azpeitian, tartean; ura bitan atera zen ibaitik, goizez eta arratsaldez

# ORAIN HOGEI URTE AZPEITIA ITO ZEN EGUN HURA



Arana kaletik Loiola bidea, bidea ibai. / DV, PEPE GIL

Nerea Uranga / Ion Aranburu

**E**urte gogorrenak goizeko ordu biak aldera hasi ziren eta hiru ordu iraun zuten”, dio 1983ko abuztuaren 28ko *Deia* egunkariak. Bi egun lehenagoko Euskal Herriko uholdeez ari zen. Azpeitian, 1983ko abuztuaren 26an, ostiralez, ibaiak segituan egin zuen gainezka. Azpeitiar asko oporretan ziren, beste batzuk bueltan... Euskal Herriko toki askotan izan ziren uholdeak; larrienak Bilbon, La Peña auzoan —Bilbon, ama batek hiru seme-alaba galdu zituen—.

Azpeitian, orduan, Imanol Elias zen alkate, baina herritik kanpo harrapatu zuen uholdeak. Hain zuzen, Kutxako Gazte Klubarekin Eskoziara joana zen, *Imanol Elias* liburu biografikoan dioen bezala: “Uholdeena jakin nuenean inpresio handia egin zidala gogoratzen dut, eta zer esanik ez irudiak ikusi nituenean. (...). Ez zitzaidan egoera hura gertutik bizitzea tokatu, baina bai gero kaltetuko jendea udaletxera joaten hasi zenean”. Hark bezala, herrian jende askok dituzte gogoan orduko uholdeak.

**Angel Rodriguez**  
(argazkilaria)



“Arazo handieneko lekuetako argazkiak atera nituen”

Angel Rodriguezek nahiko lan izan zuen 1983ko abuztuaren 26ko egun hartan. Uholdeak zirela-eta etxean ura sartu zi- ▶▶



► tzaien eta, gainera, une historiko hartako irudiak argazki makinarekin jaso nahi izan zituen. “Ni garai hartan Enparan kalean bizi nintzen, ibai aldera eta beheko solairuan. Gogoan dut nire osabak esnatu eta zer esan zuen: ‘Ura ohean sartzen ari zait!’. Guk behean bodega geneukan ardoa-eta gordetzeko, eta han ura sartu eta sartu ari zen, eta moto-bomba hartu behar izan genuen handik ura ateratzeko. Baina gero ura jaisten hasi zen eta dena garbitu genuen. Baina arratsaldean berriz ere ibaiak ur handitu ziren eta berriz ura sartu zitzaigun bodegan eta etxean. Tarte hori aprobetxatu nuen argazkiak ateratzeko. Egun hartan gertaera historikoa gertatzen ari zen eta argazkiak atera behar nituen”. Jo eta fuego aritu zen kamerarekin. “Argazki makina hartu nuen eta buelta bat eman nuen pasatzea posible zen lekuetatik. Enparaneko zubitik argazkiak ateratzeko izugarriko inpresioa egiten zuen, urak indar handia baitzuen eta zubiaren arkuak ere estalita zeuden. Zubitik argazki bat atera nuen eta beste argazkiak zubi ertetik ateratzen ibili nintzen; toki seguruagotik. Arazo handienak zeuden tokiak hartu nituen baina ez guztia. Loiola aldea, guztia, urak hartuta zegoen, baita Madalena aldea ere. Horrez gainera, Zine Klub taldean ere banabilen orduan eta, beraz, gertaera historiko hura filmatu beharra zegoen. Zorionez, Pepe Azpiazu ibili zen irudi haiek filmatzen eta gero irudiekin dokumental txiki bat egin genuen”. Egun hura ezustekoa izan zela dio, eta gaur egun horrelako zerbait gertatzea zailagoa dela. “Arratsaldeko uholdea goizekoa baino okerragoa izan zen, gainera. Uholde haien berezitasuna, Azpeitian, egunean bi alditan, goizez eta arratsaldez, ibaiak gainezka egin zuela izan zen. Oso egun mugitua izan zen niretzat”.



Autoak eta kamioia urak estalita. / ANGEL RODRIGUEZ



Izarraitze Elkarteko irudi bat uholdeen ondoren. / I.E.



Izarraitze Elkartean ura noraino heldu zen ikusten da.



Loiola bidea eta Azaoraza aldea urak hartu zituen 1983ko abuztuaren 26an. / ANGEL RODRIGUEZ

## kalteak

● **MILA MILIOI.** Garai hartan prentsan agertu zenez, Azpeitian, guztira, mila milioi pezetako galerak izan ziren.

● **KALTE LARRIENAK.** Dannonan eta Obrera enpresetan bakoitzean 50 milioi pezetakoa. Marcial Ucin, Damaso Azkue, Azcue y Cia eta Española de Metales enpresetan, bakoitzean 25 eta 30 milioi artekoa. Pastorkuan 15 eta 20 milioi pezetako artekoa. Areso, Ganbil eta Irureta enpresetan, berriz, hamar milioi pezetan azpitik. Eta Kirurin hiru milioi pezetako ingurukoa.

● **KALTETUAK.** Uholdeak gertatu eta hurrengo egunetan udaletxera kalteen berri emanez 170 kaltetu inguru hurbildu ziren.

## Jabier Merketegi

(Pastorkua tabernakoa)




“Taberna garbitzen hamabost egun eman genituen”

Pastorkuko jabeek, tartean Jabierrek, abuztuaren 26an, goizaldera, telefono deia jaso zuten ura igotzen ari zela oharraraziz. Jabierrek dio “gaizki” pasatu zutela egun hartan, eta berriz taberna irekitzeko hilabete behar izan zutela. “Dena oso azkarra izan zen. Goizeko bostak aldera deitu ziguten urak igotzen ari zirelako eta tabernaren inguruko garajeak husten ari zirela esanez. Behean, jangela eta su-





Enparan dorretxearen ondoan Urola ibaia hazita. / ANGEL RODRIGUEZ



Hartzubia eta astotegiko lau irudi. / MAITERE ALDALUR, ANGEL RODRIGUEZ



Arana eta Loiolabide arteko irudi bat. / ANGEL RODRIGUEZ

kaldea ditugu. Hasieran ez genuen sinetsi, bezperan taberna itxi eta etxeratu ginenean oraindik urak bere tokian baitzeuden. Baina oso azkar igo zen ura. Ordubeta beranduago udaltzainek deitu ziguten gauza bera esateko. Lasterka hona etorri eta lehendabizi autoak atera genituen. Kostatu egin zitzaigun, ura sartuta zegoe-lako; azkenean flotatzen atera genituen. Bezperan jangelako mahai batzuk jarrita utzi genituen, mahaiak intxaurra ziren eta asko pisatzen zuten. Nonbait, urak pixkanaka altxatu eta platerak bere tokian egon ziren. Hurrengo egunean jangelara jaitsi ginenean mahai gainak utzita bezalaxe aurkitu genituen". Jendeak asko lagundu ziela dio. "Hamabost bat egunetan jardun genuen tabernan garbiketan. Eta ahal zen moduan eman genion buelta; guk negozioa genuen eta uholdeen ondorioz ia ezer gabe gelditu ginen. Zortea sukaldearekin izan genuen, altzairuzkoa eta erdoiltzen ez dena baitzen eta salbatu egin zen". Dudak izan zituzten taberna ireki edo ez. "Etxean taberna berriro zabaldu edo ez planteatu genuen, kalte handiak izan genituelako. Seguroa geneukan eta handik ateratako diruarekin martxan jartzeko adina atera genuen. Horrek animatu gintuen".

## Joakin Arozena

(Hogar Altzariak-eko jabea)



"Auzoko jendea oso ondo portatu zen gurekin"

Joakin Arozena, Arana kalean dagoen Hogar altzariak dendako jabea da. Orain dela hogeituro urteko uholdeetan denda urez bete zitzairen egun hartako oroitzapen handirik ez du, baina jendeak eta auzokoek "asko" lagundu ziela dio. "Oso egun txarra izan zen hura, katastrofikoa. Dendako beheko solairu osoa urez bete zitzaigun eta gero gora ere sartu zitzaigun, ia ateraino heldu zen ura. Baina ate ondora iristen hasi zen unean gelditu egin zen. Dendan traste asko zegoen eta hasieran komodin gaineetara igo genituen, baina urak mugitu egin zituen eta ezin ziren hala eduki. Orduan laguntzera etorri zen jendearen etxeetara igotzen hasi ginen trasteak. Gero trasteak non genituen ere ez genekien, baina zorionez, jende jatorra tokatu zitzaigun eta gure ustez behintzat, traste guztiak bueltan jaso genituen. Auzo osoa, gurekin behintzat, oso ondo portatu zen, asko lagundu ziguten". Gero, dena garbitu, zikinkeria eta lokatza guztia kendu eta berriro denda osoa montatu behar izan zutela dio.



# Jose Mari Arregi

Udaleko aparejadorea

“Gaur egun Azoka plazan, Urrestillan, Sanjuandegin eta Loiolabiden arriskua dago, baina bideratzeak egingo dira”


Jose Mari Arregik 22 urte daramatza Azpeitiko udaletxean lanean. Aparejadorea da, eta 1983ko abuztuaren amaierako uholdeek eragin zutenaren berri zuzenezuzenean jaso zuen; argazkiak-eta ateratzen ibili zen lanean.

**• Zer gertatu zen abuztuaren 26an Azpeitian uholdeak gertatzeko?**

Abuztuaren 26ko uholdeak berezitasun bat izan zuen: goizean Urola etorri zen kargatuago Ibai Eder baino eta arratsaldean, berriz, Ibai Eder etorri zen kargatuago. Horregatik goiz partean gune batzuetan kalte handiagoak izan ziren eta arratsaldean beste batzuetan. Gero Hartzubiko zubia zuhaitz batzuk itxi egin zuten eta presa egin zen, ura ibaitik atera zen eta kalea hartu zuen, Foru Ibilbidean kalteak eraginez. Landetan eta Urrestillan ere ibaia atera egin zen.

**• Orduzkeror orduan gune kaltetuak izan zirenak konpondu al dira?**

Hartzubiko zubia berria egin zen, eta batez ere urarentzako freno zelako egin zen berria. Landetan puntu beltz bat bada, bi zubi baitaude ondoan eta bien artean urak pasatzeko zulo txiki bat besterik ez baita; gune beltz bezala kalifikatu zen gune hori garai batean, eta gaur egun gune grisa dela esan dezakegu, orduzkeror Ibai Ederko urtegia egin baitzen eta ho-



NEREA URANGA

nek Ibai Eder —ibai urtsua bera—, frenatu egin du. Damaso Azkue auzoan etxe berriak egin zirenean ibaia zabaldu egin zen, Madalenako etxeak oso behean baitaude.

**• Ibai Ederko urtegia aipatu duzu. Hori betekoa balitz eurite baten unean?**

Hori larria izaten da. Baina urtegia betebeteta behin ere ez dugu ikusiko, irizpide bat dagoelako urtegia neurri batean betetzen denean, eta batez ere uda garaian, kota batera arte husteko. Eta eurite baten unean hustuko bagenu, beheko egoera larritu egingo genuke. Urtegian jarraipen bat egin da, eta horren arabera garai bako-

tzean zein kapazitatean eduki behar den aztertzen da.

**• Garai hartan ibaiak dragatu egiten ziren. Egun dragaketak egiten al dira?**

Egia da, orduan bi edo hiru urtetik behin dragatu egiten ziren, makinarekin ibaiak garbitu egiten ziren kapazitateari eusteko. Baina orain dragaketa egiterik ez daukagu, galarazita dago. Ibaiko aktuazioetan beti bi estrategia egoten dira, gainera, kontrajarriak direnak. Uholdeak pasatzeko ibaiak garbi egon behar dute, ez du egon behar harri pilorik, ez zuhaitzik, ez du enbarazorik egon behar ura pasatzeko. Baina orain sartu den ingurumen ikuspegiarekin, ibaia gauza bizi bat bezala hartzen da eta ez da ura pasatzeko bakarrik. Hor bi ikuspegi artean oreka bat topatu behar da.

**• Gaur egun herrian zein gune dira, uholdeak etorriko balira, ureztatzeko arrisku handiena luketenak?**

Azoka plazako zubian ibaiak tope egingo balu Foru Ibilbidea urak hartuko luke, baina hor etxe berriak egiten ari diren gunean ibaia bideratzeko lanak egitekoak gara. Urrestillan ere, Kale Barrenako etxeak oso behean daude eta aspalditik bideratzeak nola egin aztertzen ari gara. Sanjuandegi bera ere behean dago. Loiolan ere urak irtengo balu errepedean bera Loiolabidera etorriko litzateke, errepedea ibaiertza baino beherago baitago. Inguru horretan Ezkerregegi eta Loiolabide inguruan ere bideratzeak egiteko proiektua aztertzen ari gara. •

Elkarrizketa oso-oso [www.uztarria.com](http://www.uztarria.com) helbidean aurki daiteke

**KIRURI**  
  
**J A T E T X E A**

Loiola hiribidea, 24  
**LOIOLA - AZPEITIA**  
 Tfnoa.: 943 81 56 08  
 Faxa.: 943 15 03 62

**LUBA**

- AHOLKULARITZA FISKALA,  
 LABORALA, KONTABLEA  
 - ASEGURUOK  
 - FINKEN ADMINISTRAZIOA

Enparan kalea, 30  
 Tel.: 943 15 75 25 Fax.: 943 15 72 75  
 e-mail: [luba.ase@euskalnet.net](mailto:luba.ase@euskalnet.net)

**ostadar optika**  
 OPTOKIAK - OPTOMETRISTAK

Jose de Artetxe, 17  
 Tel. 943-810664  
 AZPEITIA

Ibai Ondo, 28  
 Tel. 943-850445  
 AZKOITIA

**Otamendi**  
*Bitori Denda*  
 Goiko - Kale, 4 - Tfnoa. 81 13 49

**Zumitza, ihia, ratana, forja eta medulazko altzariak lantzen ditugu**

**MATXIN XESTOAK**  
**eskulangintza**

v Pablo VI, 8 - 943 810116 (denda)  
 v Matxinbenta - 943 880174 (tailerra)





**BERTAKO  
HARAGIA...  
...GURE  
HARATEGIETAN**

**HAHATATEKO  
EUSKAL  
OKELA**

**CARNE DE VACUNO  
DE CALIDAD  
DEL PAIS VASCO**

**EUSKO LABEL**

**KALITATEA**

**Beloki**

Kale Nagusia, 75 Tel.: 943 85 04 62  
AZKOTIA  
Jose Artetxe, 21 Tel.: 943 151392  
AZPEITIA

**PATXO**

**EDUARDO BERASATEGUI**

Harategi eta Zerritegia  
Euskal Herriko Haragirik Onenak

San Inazio Kaleko 12an  
Urrut. 943 81 14 98

**bertako okela**

HARZUBIA, 26 D  
TEL. 81 60 25  
ETXEOA 15 00 03  
AZPEITIA

**Harategia  
Odriozola**

Harategi  
Especializatua

Arana Kalea, 14  
Urrut.: 943 81 1015

**J.B. San Sebastián**

HERRIKO HARAGIA - HERRIKO TXERRIA

**ETXeko URDAIKIA**

FORU HIBILBIDEA, 4  
TFNOA 81 15 94

AZPEITIA

**ZABALA HARATEGIA**

KALITATEZKO  
HARAGIA

BUSTINZURIKO ERREBALA,  
TFNOA: 943 811671



**amuko zubitik** Mikel Arregi

## DROGEN KONTSUMOAZ

**I**ritsi dira berriro ere San Inaziyuek, eta beste behin ikusiko da drogen arloan lan asko dagoela egiteko. Eta ez kontsumitu behar ez direlako, beraiek gu kontsumitu ez gaitzaten baizik.

Azpeitian ere droga legal eta ilegalen kontsumo esajeratua ohikoa dugu, eta horrek ere gizartean ikaragarritzko eragina dauka.

Badira honekin lotuta dauden eta gutxienez zer pentsatua ematen didaten bi gai.

Apatia eta inmovilismoa, lehenik. Drogen gehiegizko kontsumoak, legalak zein ilegalak izan, asko eragiten du gizartearen aurrean dugun jarreraren, bakoitzaren ekimena asko murriztuz. Jakin badakigu, alkoholarekin pasatuz gero ondorengo egunetan jota egon ohi garela. Bestelako drogekin pasatuz gero, zer esanik ez. Kontrolik gabeko drogen kontsumoak (ere) bere helburuengatik borrokatuko ez den gizarte bat bultzatzen du. Eta gaur egungo gizarteak bestelako jendea behar du, badagoelako lana egiteko nahikoa aitzakia: euskara, kultura, gatazka politikoa, ingurume-

na, etxebizitza, lan baldintzak... Baina konponbidea ez da drogen kontsumo eza, heziketa baizik. Drogak kontsumitzen ikasi behar dugu, geure eguneroko bizitza zapuztu ez diezaguten. Eta arlo honetan berebiziko garrantzia du Gazte Mugimenduak; gazteak direlako drogen mundutik gertuen daudenak, eta gazteak elkarri begira bizi direlako.

Zer pentsatua ematen dit, bigarrenik, drogen eraginak eta honi buruzko informazio faltak. Batik bat droga ilegalen kasuan, eragin diezaguketen kalteei (edo onurei) buruzko informazio ez dago. *Speed*-a hartzeak neuronei eragin diezaiokeen kalteari buruz ezer gutxi dakigu, ez dakigulako *speed*-a zer arraio den. Eta beste hainbat droga klaserekin gauza bera gertatzen da.

Benetan serio planteatu beharreko gaia, beraz, drogen legalizazioarena dugu. Droga guztiak legalak baldin balira, informazioa eskuragarriagoa genuke. Eta horrek kontsumoari buruzko heziketa asko erraztuko luke.

**azketako ude** Kepa Susperregi

## OPORRALDIKO GOGOETAK

**U**ztailaren erdira iritsiak gara. Santiago eta San Inazio jai egunak aurrean ditugu. Gure artean opor, atseden usaina duen garaia dugu aurrez aurre. Guztientzat ez badira ere, ezin ukatu dugu giro berezia izaten dela gure artean abuztuan.

Duela urte batzuk, honoko gogoeta hau zabaldu zen Andaluzia inguruan oporretako garaia gogoan harturik. Ondorengo iritzi hauek eskaintzen zituzten bertako hainbat gotzainenek...:

- "Oporrak esker-onez hartu behar ditugu. Gure saiakeraren fruitu ditugu, jakina. Baina inguruko lanaren ondorio ere badira".

- "Elkartasunean, solidaritatean bizi behar ditugu. Gogoan hartu behar ditugu, izan ere, gure bizitzaren une gozoetan ere, atsedenik edota gozatzerik ez duten pertsonak".

- "Zentzuz osatu, bete behar ditugu. Askatasun osoz betetzeko aukera eskaintzen zaigun denbora dugu. Baina oporrak norekin igaro erabaki beharrean gaude. Eta ez dugu ahaztu behar irakurketarako edota otoitzerako denbora hartzea egokia litzazukeela".

- "Bizirik itzultzea garrantzizkoa dugu. Ezin dugu ahaztu errepidean ibiltzeak berezkoa duen arriskua".

- "Eta ahalegin berezia egin behar dugu, hobe itzultzeko".

Aprobetxa itzazu opor edota atseden egunak bizitzak eskaintzen dizkizun sorprese, doan eskaintzen zaizunari... zabaltzeko. Hitz egin ezazu lagunekin, naturaz goza, eta ez ahaztu inguruan dugun ona eta ederra den guztia eskainia duzula.

Ondo pasau..... San Inazioak!

**puntie ateaez**

Enekoitz Esnaola

## KULTURAZ

**J**ean Hurstel frantziarrak esana da, ehun aldiz leitzeko modukoa:

"Kulturek etengabeko berrikuntza behar dute. Kultura tradizionala errepikapenean oinarritzen da; errepikapenak heriotza dakar".

"Aspaldian sortu ziren kultur instituzioak: operak, musoak, antzokiak, liburutegiak... Kultur politiken tresna tradizionalak dira. Gizartean ez dira txertatu".

"Eskubiak mehatxua darabil. Kultura bizi batek botereari aurre egin behar dio, kritika, erantzun".

"Ezkerrak ez du sinetsi izan kulturaren. Mundua ekonomiak aldatzen duelako ustean daude, eta ez dira ohartzen aldaketak, eragitekotan, kulturak eragingo dituela".

Ez ezkerak eta ez eskuak ez omen dutela, beraz, sinesten kulturaren. Eta guk alkate lehen EEkoa zena eta orain EAJkoa... Helduko da 101. eguna, beste batek punta ateratzeko.

**bota bertsue**

Aritz Zubizarreta

## TXUPINAZOA

Udako oporraldiak ta San Inazio jaiak disfrutatzeko parrandarako badatoz garaiak bezperako suziarik prestu herritar guztiak giro onean umore onez pasatu festa alaiak. (bis)

Jaietan ahaztu ezin preso dauden lagunekin eta Udalak duen jarrera gaztediarekin nahiz da Bastidak aldegin ezin gaztetxerik egin ze pasa beher du gazte guztion nahia errepesta dedin. (bis)





**TXUPINAZOA.** Aurten, San Inaziyo bezperan, alkatea ez ezik, hiru herritar ere izango dira udaletxean txupinazoa botatzen: Ainara Epelde, Kepa Peñagarikano eta Aitor Zubillaga. Hauek ere badirelako nor.



**ZAKARRONTZIRIK EZ.** Enparan dorretxearen atzeko zelaia leku ederra da, erdi gunean dagoen leku berde bakarrenetako; bakarra ez bada. Baina txukun egoteko zakarrontzi bat bat bera ere ez dago.



**EGITARAU BAKARRA.** Aurten ahalegina egin da, baina ez da posible izan San Inaziyuetarako egitarau bakarra ateratzea. Datorren urteko festetan egitarau bakarra izango al da? Ez legoke gaizki.

## kartak

### Duintasan kontua da

Konturatzera, herriko jaiak atariko atera iritsi zaizkigu. Jaiekin batera datozen zezenketen kariaz, hausnarketarako bidea ireki nahiko nioke gai hori gustuko eta ez hain gustuko duen edonori.

Ez dut hitz egin nahi horren espainiarasunaz edo euskaltasunaz (Espainiako kulturak arlo askotan aberastu egin gaituela ukatzen ez dudan arren).

Ez dut aipatu nahi zezenek jasan behar duten krudelkeria. (inork ez dit ukatuko begibistakoa dena, dena den).

Ez dut gaitzat hartu nahi zezenaren aurrean jartzen diren artea edota balentria. (Zergaitik ez ote dituzte energia eta *koskabilo* horiek beste helburu batzuk lortzeko erabiltzen?). Ez dut iruzkinik egingo sarrera erosi eta espektakulo odoltsua ikusiz txalo zaparrada eta *ole* animotsuak botatzen dituztenei buruz, belarri eta buztana eskatuz. (Garbi ote dute zer txalotzen duten?).

Ez dut ezer esango *Azpeitian zezenik gabe jairik egongo al litzateke?* lelo leloaz. (Lelokeria deritzot beti kalaka berean aritzeari).

Ez.

Duintasunaz hitz egin nahi dut; duintasun kontua da eta.

Denok onartzen dugu duintasunezko tratu bat pertsona eta animalientzat. Ez dugu gizalgezko tratu bat pertsona eta ez animalientzat. Honek guztiak kezkatu egiten gaitu, eta, kontzientzia kargak edo nik ez dakit zerk eraginda, badirudi hau guztia pixkanaka aldatzen ari dela. Horra Lekeitioko antzarak (duela gutxi arte bizirik jartzen zituzten sokatik zintzilik), kanpandoretik botatzen zuten ahuntzaren kasua, eta, hurbilago etorrita, berriz, Donostiako Santo Tomasetako txerria erakustek eragin duen polemika...

Apurka, denok ari gara konturatzeko animaliekiko tratu horiek ez direla gizabidezkoak, eta etikoki defendatu ezinak direla.

Animaliek ere bere duintasuna dutela ezin du inork ukatu.

Zezen-plazara doazenak, hilturren dagoen zezenaren begietara begiratuko balute (izen propioa duten animali dotoreak), begirada hori irakurriko balute...; duintasuna galduta eta zapuztuta dagoen *Miura* edo *Vitorino* horren orru etsi eta tristetek esan nahi digutena entzungo balute... Zer jai goratu eta txalotzen ari diren ohartuko litzateke.

Batzuk proba hori egin omen dute; gero eta gehiagok. Seguru nago hemendik aurrera jaiekan inoiz baino azpeitiar gutxiago izango dela zezenketetan; izan ere, azpeitiarrok, gainontzeko guztiek bezalaxe, badakigu zer den bidezkoa eta zer ez, zer den etikoa eta zer ez, zer den duina eta zer ez.

Maite Garmendia

### Azpeitiko 'ironman'-ak

Azkeneko Uztarriaren zenbakian [uztailekoan] aipatzen di-

ren bi lagunez gainera badira beste bi azpeitiar proba hori egin dutenak.

Bata, Jabier Amenabar azpeitiarra da, 40 urte ditu eta urte mordoskan Zarautzen bizi da. Nik dakidala bi *Ironman* eginak ditu: bat Lanzaroten eta bestea Austrian, eta ez dakit hirugarren bat ez ote duen egin (orain dela bost edo sei urte egin zituena).

Bestea, berriz, Alberto Alberdi. Honek ere 40 urte ditu, eta Damaso Azkue auzoan bizi da. Duela hiru urte Alemaniara joan zen Goierriko beste triatleta lagun batzuekin Roth-eko *Ironman*-a egitera.

Uztarriako bazkide bat

Farmaziyek gaez abuztuan:

- 1-13-25-30-31: Aranburu. 943 81 13 50
- 2-3-14-26: Beristain. 81 19 49
- 4-10: Jaen (Azkoitia). 85 06 60
- 11-16-17-28: Garcia. 81 12 74
- 12-29: Zulaika. 15 03 34
- 15-27: Etxebeste. 81 59 74
- 18-24: Gisasola (Azkoitia). 85 12 35



## akulue



Leire Ostolaza

FESTEN  
HASIERAKO  
SUZIRIA

**O**rain bi aste jakin nuen aurten suziria ez duela alkateak bakarrik botako; herriko hiruk izango dute ohore hori, eta pozten naiz. San Inaziyuek ez dira famatuak festa herrikoien-gatik, handiki itxura neurri-gabekoarengatik baizik. Jaien hasierako suziriri txaloekin erantzuten dio jendeak, trajerik onenarekin, eta gazteak ez gara txanpainez ziprztindu eta salto eta dantzan festarako prestatzen. **Poteak hartu eta festa herrikoie ez ofiziala gozatzen dugu.** Jaiak aurrera egin ahala, gauzak ez dira gehiegi aldatzen, orkestra estraren bat beti izaten da haurrak dantzan jartzen dituen, eta gurasoak atzetik begira, trajerik onenarekin. Arratsaldetan, zezenaren zigorrari barre egitera doaz, trajerik onenarekin, eta inguruetak aberatskiloak azalduko dira, lepoa tente. Hitz egingo da, berriz, gure harrokeriaz, hori baita herri honen azala; mamia, batzutan, ikuilatxurra bera baino baxerritarra bada ere.

Suziriarena festak herrikoitzen hasteko ikutua izan daiteke, baina oraindik bada zereginik, festak ondo pasatzeko izan daitezten, eta ez zein dotore eta aberatsak garen erakusteko. Galtza bakero zaharrak prestatu, eta animo parandarako; jan, edan, dantzatu eta lagunez gozatu!

## galdeiez

## Hondartzara joaterako garaian fuel orbanak eraginik egin al dizu?



## Ainhoa Mendizabal

(ikaslea)



**“Ez naiz askotan joaten hondartzara, hemen igerilekua dugu eta. Baina joan izan naizenetan ez zait ezertxo ere gertatu”.**

## Imanol Gallastegi

(ikaslea)



**“Hondartzara berdin-berdin joaten naiz. Fuel orbanagatik ez naiz igerilekura-edo joan, ez dit eragin han-**

## uztarria.com-eko eztabaidie

**GAIA: Uztarria Kultur Koordinadoraren web guneko ‘eztabaidan’ atalean San Inaziyuek festak aldatzen ari diren edo ez sesioan dabil-tza kide batzuk. Hona hemen gutun horietako sorta bat:**

## Zerbait aldatzen ari da

San Inaziyuek ari dira aldatzen, pixkanaka bada ere. Txupinazoa alkateak botako al du hurrengo urteetan? Ezetz entzun dut; aldaketa bat, beraz. Txosnek herri erdian leku ona bereganatu dute, eta erreferentzia leku dira herritarrentzat eta herrira datozen kanpotarrentzat, beti leku berean egonda. Lehen ez zen horrela, eta asko kostatu zen hori lortzea; beste aldaketa bat, beraz. Festa Herrikoien Aldeko Batzordeak ere hartu du bere lekua, ari da bere lekua egiten: ekitaldi asko antolatzen ditu, jende asko mugitzen du (ikaragarri, Azpeitia ezagututa), eta aurten, nik dakidala, Udalak bere egitarauan ere sartuko du haren egitarauaren zati bat (beste bat, lotsagarriki, kanpoan utziko du, presoan aldeko urteroko afaria kasu); beste aldaketa bat, beraz... Ari da, ari da pixkanaka aldatzen, nik uste dut baietz. Gauza asko daudela oraindik aldatzeko? Horixe baietz. Baina orain San Inaziyuek orain dela hamar urte baino zertxobait herrikoioak dira. Ez da asko, baina ez da gutxi.

Nik uste baietz

## Tradizioa eta egungoa

San Inaziyuek, beste herri askotako festak bezala, aldatzen ari dira. Ez aldatzea ez zen normala izango. Horrekin ez dut esan nahi dena aldatzen denik, leku guztietan mantentzen dira

tradizioak gehiago edo gutxiago. Uste dut tradizioa eta urteekin datozen aldaketak oso ondo lotzen direla elkarrekin; hau da, garai desberdinetako ekitaldiek eta gaur egungoek festa borbilak osatzen dituztela, eta denon gustukoak. Beraz, esango nuke aldaketak badaudela. Gure jarrera hobetu beharko genuke, eta, zehazki, festetan politika kontuak ez sartuz; txupinazoa da horren adibide garbia. Eta txukunago ibiltzen ikasi behar dugu, kalean txiza ez eginez, zerbaitetarako jartzen baitira komunak. Festak horrela ere hobetzen direlako, eta ez betiko, edo azkenaldiko, *herrikoyo* arrazoi horrekin bakarrik.

Bai pixkanaka

## Zer da bada politika?

Politikarik gabeko festak eskatu dituzte batzuk. Baina zer da politika? Horien ustez, presoan aldeko aldarrikapenak, ezker abertzalearen aldarrikapenak dira politika? Eta gainontzekoa? Eta Ibarretxe eta konpainiaren prozesioa? Festa ia denak zezenketen inguruan antolatze hori? Eta San Inaziyuei frankismo garaiko izaera bere-tsua ematea? Eta txupinazoa beti alkateak botatzea? Eta festen antolaketa ofiziala, ia eskusiboki, betiko agintarien esku egotea? Hori dena ez al da politika?

Politika sartu gabe? Ados



dirik egin. Baina batzutan galipotarekin zikinduta etorri izan naiz”.

## Begoña Orbegozo (etxekoandrea)



**“Aurten oraindik ez naiz Euskal Herriko hondartzetan izan.**

Hondartzara joaten naitzen bainatzeraz joan ohi naiz, eta aurten kontuz ibili beharko dut”.

## Olatz Isasmendi (langilea)

**“Ez naiz gehiegitan joaten**

## UZTARRIAREN WEB ORRIKO INKESTA

**1. GALDERA: Zein egun duzu gustukoena San Inaziyetan?**

- San Inaziyo bezpera: %50
- San Inaziyo eguna: % 37
- San Inaziyo bigarrenena: % 1
- Gau-pasa eguna: % 12

**hondartzara, ez zait-eta gus-tatzen.** Fuel orbanak direla eta, gutxiago joango naiz aurtengo udan. Alternatiba moduan, mendira joango naiz”.

## Maialen Iturria (ikaslea)



**“Hondartzara ez naiz askotan joa-ten.** Herrian igerileku estaligabea dago, eta

hara joaten naiz hondartzaraino joan beharrean. Hondartzara ere joaten naiz, eta ez dit eraginik egin, joan edo ez erabakitzerakoan, galipotaren kontuak.

Orain artean, hondartzara joan naitzenetan, nik behintzat ez dut fuel arrastorik etxera ekarri”.

## Jone Iriondo (langilea)



**“Ez dit eragin handirik egin; ni berdin-berdin joaten naiz.**

Hondartzatik etxera bueltan hantetan ekarri izan ditut galipota arrastotak, baina ez ezer handirik. Zerbait gertatzen zaidala sumatuko banuke, hondartzara joan beharrean beste nonbaitera joaten hasi beharko nuke, mendira edo”.

## hemerotekie

# PELOTEOA ETA ZURIKERIA

Koldo Aldalur (‘Argia’, 1904. zbk; 03-06-22)

**G**arai batean arraindegian lanean ari nintzela nagusiak esan zidan sasikumea —beno berak literalki putasemea esan zuen— izatea hobe zela gizarajoa izatea baino, eta horrek dezentelagundu dit ordutik.

Uste dut Eskuzko Pelota Enpresen Ligak gizarajotzat hartu nahi gaituela. Gogoan dut oraindik aurkezpena egin zuten eguna: “Seriotasuna ekarriko diogu profesional mailako pilotari, aro berri baten atarian gaude, araudi aurrerakoiak zuzenduko du aurrerantzean gure kulturaren muinean dagoen kirola eta abar”. Alderdi Ederreko tamarindoei gertatzen zaiena gertatu zaie hauei ere: kanpotik kristoren itxura eta barrutik erdi usteldurik.

Eta arazoa ez da erabaki okerrak hartu dituztela irabaziak pilotariaren osasunaren gainetik jarrita, edo madarikatua gertatu den finalurreko ligaxka antolatu zutenean ez zirela konturatu berrietako batzuk pilotari zirenean onartzen ez zutena orain beste batzuentzat nahi zutela. Julian Retegik hamaika txapela nagusi irabazi zituen hogeita sei partida soilik jokatu, eta hauetariko asko manomanistako azken partidaren bakarrik arituta. Arazoa da tontotzat hartu nahi gaituztela. Seriotasun aurrerakoia lehendabiziko haize kolpeak lurreraino eraitsi du. Txapelketan pilotariarik hoberenak araudi berezirik izango zuenik ez ziguten aipatu ere egin, eta bat-batean denon onerako delakoan Aimarri —eta Abeli— atzerapena onartu diete arestian beraiek gandorra xut zutela esandakoa ahaztuko dugulakoan edo.

Baietz, tontotzat hartu nahi gaituztela. Baezta-

kigu bada azken finean bai Asegarce bai Aspe enpresak besterik ez direla. Normala da bere dirua arriskuan jartzen duenak araudia nahi duen bezala erabiltzea, baina horretan lehen egunetik ekin zioten oker eta gero, Lete handiak zioen bezala, burdin okerra zuzenduko zuen doktrina falta. Zergatik ez zuten esan: “Benoa, araudia aurkezten dizuegu baina komeni bazaigu komuneko papera balitz bezala erabiliko dugu. Negozio hau gurea da eta ligaxkara iritsitakoan, edo, lehenago agian, espero ez dugun azken orduko arazoren bat bada, bilduko gara eta saiatuko gara irtenbide egokiena aurkitzen”. Kristalezko buruz buruko txapelketa eskaini nahi ziguten, eta estreineko ukituarekin hautsi da. (...)

Baina dena ez da txarra izan. Aspaldi honetan ahotik ahotik dabil tamalez botere banaketaren kontua —ez didazue ukatuko gauza hauetaz hitz egiten dugunean ezer onik ez delako izaten dela—; bada txapelketa nagusiaren aferan gehien harritu nauena hainbat komunikabideren jarrera izan da. Eskuarki enpresa gizonak eta kazetariak elkarren ondoan esertzen dira pilotalekuan, eta hori eroso bai, baina ez da komenigarria, errealitate orok galtzen duelako mamia gertuegitik begiratzu gero. Horrela, zurikeria gailentzen da alde bietatik, eta jakina da: zailagoa da hurrengo egunean kritika egitea bezperan kafea ordaindu dizunari. Oraingoan, ordea, hasi betiko zintzoetatik eta erasoan ohiturik daudenetara, denek banatu dute errukirik gabe egurra. Hori zerbaiten ondorioa da. Edo oraingoan kafea ez zegoen zintzurretik pasatzerik, edo kazetariok ere konturatzen hasi gara zurikeriak balioa eta sinesgarritasuna kentzen diola gure lanari. (...)

**“Festa Herrikoien Aldeko Batzordeak ere hartu du bere lekua, ari da bere lekua egiten”**

**Nik uste baietz**

**“Uste dut tradizioa eta urteekin datozen aldaketak oso ondo lotzen direla elkarrekin”**

**Bai pixkanaka**

**“Politikarik gabeko festak eskatu dituzte batzuek. Baina zer da politika?”**

**Politika sartu gabe?**





## BADUZU NON AUKERATU

Garmendipe Kalea, 1 20730 Azpeitia Gipuzkoa  
Tel. 943 15 71 15

# gotain



# gotain

LURRINDEGIA

Erdikalea 1. 20730 Azpeitia Tel. 943 814 358



# Imanol Amiano

'Gara' egunkariko langilea



## “Gogorra zaie ‘Gara’ metrailetaz ixtea; itotzea da aukera”

‘Gara’ egunkaria egin. Oihu bat dirudi. Eta hitz jokoia ere bai. ‘Egunkaria’ aurten itxi dute. ‘Egin’ duela bost urte. Eta orain ‘Gara’ itxi egin nahi dute.

**O**rain *Gara*-ri tokatu zaio. Lehen *Egin*-i eta *Egin Irratiari*, gero *Ardi Beltza*-ri, eta aurten bertan *Egunkaria*-ri. Espainiako Estatuaren afizioa da komunikabide libreak ixtea. Gustukoak ez dituelako. Orain *Gara* itxi nahi du, *Egin*-en enpresa argitaratzailearen —Orain— zorra *Gara*-renari —Baigorri— pasatuta: 5,1 milioi eurokoa da zorra. Imanol Amiano da Azpeitian bizi den *Gara*-ko langile bakarra. Azkoitiarra da hura, eta *Egin* itxi zutenean, Azkoitiko eta Azpeitiko kartak egiten zituen egunkarirako. *Gara*-n, sorreratik bertatik dago: 1999tik, beti Kirola sailean; hasieran erredaktore, eta

lehengo urtetik arduradun. Harekin hitz egin du Uztarriak.

### ● Orain zuek...

Bai, baina beti eduki izan dugu kezka. *Egin* itxi zuten, *Gara* sortu genuen, eta beti hor egon den mehatxua orain zehaztu da.

### ● Nola, gainera!

Legediaz ulertzen duen edozeinekin hitz egin, eta denek esaten dute Espainiako Gizarte Segurantzak egin duena lekuz kanpo dagoela; alegia, *Egin*-en zorra guri pasatu. Baina Espainiako Estatuak helburu bat du aspalditik, helburu argia, eta konplexurik ez dauka hori betetzeko, baita legetik kanpo ere.

### ● Zer espero duzue?

Ez dakigu nondik eta noiz joko duten. Batetik, badu alde on bat: lanean segitzen dugu. Baina, bestetik, badauka alde txarra ere: ez dakigu noiz joko duten, eta nola-baitekoro noraieza sortzen dizu horrek.

### ● Baina asmoa nola bete dezaketen?

Baliteke ez bidaltzea Guardia Zibila, agian gogorra egingo zaielako berriro metrailetaz ixtea egunkari bat. 1998an itxi zuten horrela *Egin*, aurten *Egunkaria*. Orain nola? Ba *Gara* itotzea da aukera bat.

### ● Eta orduan, zer?

Kazetari proiektu bat berriz ere pikutara bidaliko dute. Gero ez dakit zein legek, denborale batera, arrazoia emango digula? Bale, baina alferrik izango da orduan.

### ● Zer dio kaleko jendeak?

*Egin* eta *Egunkaria* kasuetan baino zailagoa zaigu azaltzea. Orduan metrailetak erabili zituzten eta jendeak hori ikusi eta protesta egiten du. Baina orain beste modu bat ari da erabiltzen Espainia, zor kontu bat. “Baina lanean ari ez zarete ba”, dio jendeak. Eta zuk azaldu egin behar.

### ● Baina mugitu beharra legoke, ezta?

Hala da. Baina uda dator, hor dago oraindik *Egunkaria*-rena, gure gai hau zaila da, eta kanpaina zehatza ere ezin dugu antolatu, ez dakigulako noiz joko duten, enbargu prozesua aurrera doan arren. Dena dela, ari gara jendearekin hizketan.

Enekoitz Esnaola



# Udal batzordeburuak

## HAMAR BATZORDE; EAJ-K ZAZPI ETA EA-K HIRU



**Julian Eizmendi**  
• Alkatea • Hirigintza-Ingurumena • EAJ



**Manuel Unanue**  
• Ogasuna-Kontu Batzordea • EA



**Iñaki Etxezarreta**  
• Zerbitzu orokorrak-Baserria • EAJ



**Ana Mendizabal**  
• Hezkuntza-Euskara • EAJ



**Mikel Ibarzabal**  
• Festak • EA



**Aitor Gorrotxategi**  
• Kultura-Gazteria • EAJ



**Ana Maria Reza**  
• Gizartekintza • EAJ



**Kandido Mitxelena**  
• Kirolak • EA



**Jabier Altuna**  
• Giza baliabideak-Antolaketa • EAJ



**Jose Luis Mangas**  
• Industria-Merkataritza-Turismoa • EAJ

# UDALA, XEHE-XEHE AURKEZTUTA

Uztailaren 10ean egin zen udalbatzarrean, udal batzordeak, batzordeburuak, soldatak eta ordainsariak eta ordezkariak zehaztu zituzten EAJ, EA eta PSE-EEko zinegotziek

### Nerea Uranga

**U**dal Gobernu Batzordea, batzordeak eta batzordeburuak, soldatak... erabaki ziren uztailaren 10ean. Erabakiak EAJ eta EAKo zinegotziek eta PSE-EEko zinegotziak hartu zituzten; PPko Francisco Javier Piñeiro zinegotzia ez zen agertu udalbatzara (gainera, oraindik ez du hartu kargua). Habea-ri ez diote ordezkariarik eta presentziarik eman.

### UDAL TALDEAK: Hiru talde.

- EAJ. Bozeramailea Aitor Gorrotxategi, eta ordezkoa Ana Mendizabal.
- EA. Bozeramailea Manuel Unanue, eta ordezkoa Kontxita Martija.
- PSE-EE. Manoli Uranga izango da bozeramailea, eta ordezkoa, biak.

### UDALBATZARRAK: Hilaren lehen ostegunetan.

• Ohikoak: Hilaren lehen ostegunetan, 20:00etan. Jai balitz, bezperan, ordu berean.

### BATZORDEAK: Hamar udal batzorde.

- Hirigintza-Ingurumena: Julian Eizmendi (EAJ).
- Industria-Merkataritza-Turismoa: Jose Luis Mangas (EAJ).
- Kultura-Gazteria: Aitor Gorrotxategi (EAJ).
- Hezkuntza-Euskara: Ana Mendizabal (EAJ).
- Zerbitzu Orokorrak-Baserria: Iñaki Etxezarreta (EAJ).
- Giza baliabideak-Antolaketa: Jabier Altuna (EAJ).
- Gizartekintza: Ana Reza (EAJ).
- Ogasuna-Kontu batzordea: Manuel Unanue (EA).
- Kirolak: K. Mitxelena (EA).
- Festak: Mikel Ibarzabal (EA).

• Batzorde bakoitzean EAJk lau partaide izango ditu, EAK bi eta PSE-EEK eta PPK bana.

### GOBERNU BATZORDEA: Burua Julian Eizmendi.

• Kideak: Julian Eizmendi (EAJ), Iñaki Etxezarreta (EAJ), Ana Mendizabal (EAJ), Jabier Altuna (EAJ), Manuel Unanue (EA), Kontxita Martija (EA) eta Olatz Eizagirre (Udaleko idazkaria).

### UDAL ELKARGO ETA ERAKUNDEAK: Gehienetan alkateak ordezkariak du.

- Urola Erdiko Mankomunitatea: Julian Eizmendi eta Manuel Unanue.
- Udal Euskara Patronatoa: Ana Mendizabal, Aitor Gorrotxategi, Jabier Altuna eta Kontxita Martija.
- Udal Kirol Patronatoa: Kandido Mitxelena, Julian Kortajarena eta Aitor Gorrotxategi.

- Azpeitia Lantzen: Julian Eizmendi eta Manuel Unanue.
- Lapatx Zabortegia: Julian Eizmendi eta Manuel Unanue.
- Urolako Industrialdea: Julian Eizmendi.
- San Martin Fundazioa: Julian Eizmendi.
- Tren Museoa: Jose Luis Mangas.
- Urkomen: Iñaki Etxezarreta.
- Udalsarea programa: Julian Eizmendi.
- Gipuzkoako Uren Kontsorzioa: Julian Eizmendi.

### LIBERATUAK: Lau liberatu.

- %100ean: Julian Eizmendi alkatea (EAJ) eta Iñaki Etxezarreta (EAJ).
- %75ean: Manuel Unanue (EA).
- %25ean: Aitor Gorrotxategi (EAJ).

### ORDAINSARIAK: Liberatuenak eta batzordeetako ordainsariak.

- Julian Eizmendi alkateak Eudelek adierazitako zuzendaritza mailari dagokion soldata du; hau da, 57 mila euro urteko.
- Iñaki Etxezarretak, Eufalebak adierazitako 27. mailaren araberakoa du: 43,7 mila euro urteko.
- Manuel Unanuek, Eufalebak adierazitako 27. mailaren araberakoa du: urteko 32,8 mila euro.
- Aitor Gorrotxategik, 10,9 mila euroko soldata jasoko du urteko. •





NEREA URANGA

**G**ipuzkoako Foru Aldundian Gizarte Politikako diputatu kargua hartu zuen uztailaren 3an Esther Larrañagak. Azpeitiko Udaleko zinegotzi ere bada; hain zuzen udalbatzar baten ostean izan zuen solasaldia Uztarriarekin.

● **Nola eramango dituzu bi karguak?**

Une honetan buru-belarri Diputazioan nago. Udalean talde sendoa badago, eta orain, pertsonalki, nire ardurarik handiena Diputaziokoa da. Baina Azpeitiaren alde taldeari laguntzeko prest nago.

● **Aurreko legealdian ere Gizartekintza departamenduan aritu zinen lanean Foru Aldundian.**

Aurreko legealdian bi zuzendaritza zeuden Gizartekintzan, eta nik programazioa eta kudeaketa zuzentzen nuen. Orain departamendua zatitu egin da. Gaur eguneko gure departamendua Gizarte Politika da; behar handiena dutenei bizi kalitate bat lortzea da gure helburu nagusia.

● **Udalak, Loiola Fundazioaren bidez, badu gizartekintzako proiektu bat. Horren berri ere izango da Diputazioan.**

Hala da, Azpeitian proiektu nagusi bat badago. Nik Diputazio bezala ezagutzen dut, aurreko legealdian azaldu zigutelako Azpeitiko Udaleko arduradunek. Orain, Diputazio bezala, gu zain gaude Azpeitiko Udalak zer erabakitzen duen, eta horren arabera ea bat datorren gure mapan.

● **Ibilbide politiko luzea daramazu.**

1990ean sartu nintzen [EAEko] Legebiltzarrean, eta nire bigarren legealdian Legebiltzarrean sartu eta kredentziala aurkeztu nuen, baina gero Gipuzkoako Foru Aldundiko hauteskundeetan sartu eta Batzar Nagusietako lehendakari aukeratu ninduten. Aldundian aurreko legealdian Gizartekintzako zuzendari izan nintzen, eta orain Gizarte Politikako diputatua.

Nerea Uranga

## “Orain, pertsonalki, ardurarik handiena Diputaziokoa dut”

Gizarte Politikako diputatua eta Udaleko zinegotzia izango da legealdi honetan Esther Larrañaga. Uztailaren 3an hartu zuen diputatu kargua Foru Aldundian



udal erabakiek

## Atxubiagako errotonda eraikitzeko obrak Antzibar S.A.-ri esleitu zaizkio

Azpeitiko Udalak Atxubiaga inguruan, Azpeititik Urrestillarako errepidean, errotonda egitea erabakita zuen aurretik. Maiatzaren 23an pleno aretoan egindako bilkuran, eta gehien-goaren aldeko botoekin, lanak Antzibar S.A. enpresari esleitzea erabaki zuen. Atxubiagan errotonda egiteko proiektua Estanislao Narbaizak egindakoa da, eta Euskal Herriko Errepide Kanal eta Portuetako Ingeniari Kolegioak 2002ko

urriaren 9an bisatu zuen. Antzibar S.A. enpresarekin egindako kontratua 427.334 eurokoa da, eta kontratistak esleitutako lanak sei hilabeteko epealdian burutu beharko ditu. Akordio hori behin betikoa da, eta kontratuaren berri Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean uztailaren 14an argitaratu zen. Atxubiagako ez da Azpeitian egingo den errotonda berri bakarra; Sanjuandegi auzoan, Loiolabide, Landetarako errepidea eta Jose Artetxe auzoa lotuz, gaur egungo saihesbidean ere errotonda berria egiten hasiak dira dagoeneko. Gainera, errotonda hori egiteko, zubia zabaldu egingo da.

## Enrike Lopez

gurien...

desobeditzailea

### “Azpeitian lo egiteko tokia aurkitzea kostatu egin zitzaidan”

**Ion Aranburu** / Enrike Lopez Portugaletekoa da. Maiatzaren 15ean Leioatik abiatuta, herriz herri dabil, desobedientzia eta ideia berriak zabalteko asmoarekin. Azpeititik pasatu zen uztailaren 16an. 1682. kilometroa egin zuen hemen; Tolosatik etorri zen Azpeitira, eta gero Zestoarako bidea hartu zuen.

● **Zein helbururekin hasi zenuen ibilaldia?**

Euskal Herrian ideia berriak zabaltzeko helburuarekin, herriarengan eragiteko asmoarekin eta egoera mugiarazteko nahiarekin. Borroka zehatz batean sartuta nago, eta Euskal Herriko arazoaren ardatza independentzia da.

● **Orain arte 1.682 kilometro egin dituzu. Zer-nolako balorazioa egiten duzu?**

Oinez gure lurraldea ezagutzen ari naiz, eta zoragarria da. Ez dago Afrikara joan beharrik toki politak ikusteko. Orain arte ibili naizen herrietan nahiko harrera ona jaso dut; ikurrina eramateak ere lagundu dit. Baina irainak ere jaso izan ditut.

● **Nolako harrera jaso duzu Azpeitian?**

Nahiko ona izan dut. Azpeitia herri euskalduna eta abertzalea da, baina berandu heldu nintzen, eta kostatu egin zitzaidan lo egiteko lekua biatzea. Hiru kilometro inguru egin nintuen lo egiteko toki bila. Azkenean Eskusta ostatuan egin nuen lo. Herrietan kontakturik egin gabe badaukat, kalean gelditzeko arriskua daukat. ●



“Oinez gure lurraldea ezagutzen ari naiz, eta zoragarria da”

## Habeak, Udalak “baztertuta” duela salatu du



Habeakoak prentsaurrean. / NEREA URANGA

**Oihana Elduaen** / Habeak, “azken hamar urteetako Udalik antidemokratikoenaren aurrean” gaude-la esan du. Legealdiko lehen udalbatzarrera ez zituztela gonbidatu jakinarazi dute Habeakoek, eta Udalari honek Alde Zaharrari begira aurkeztutako proiektua gelditzeko eskatu dio.

Ekainaren 14tik bi bilera izan dituzte EAJKo eta EAKo ordezkariekin, eta ezkertiar eta abertzaleen plataformakoen iritziz, “lehenengoan jarraitzeko asmoa” erakutsi dute bi alderdiek. Orain arte egin den udalbatzar bakarrera ez dituzte deitu, eta “Habeari dagokion lokala PP eta PSOeri eman nahi diote”. Beraz, “azken hamar urteetako Udalik antidemokratikoenaren aurrean gaude”, haien esanetan. “Lau azpeitiarretik bat baztertzen duen Udal baten aurrean”. Europako herri bati “dagokion” sistema batetik baino “gertuago dirudi Hego Afrikan *apartheid* indarrean zegoen egoeratik”. Habeak “herri programaren bidez, konpromisoak hartu” zituela dio, eta “herri eredugarri baten alde lanean” ez direla geratuko aldarrikatu du.

**ALDE ZAHARRA.** Udalak Alde Zaharrari begira aurkeztutako plana gelditzeko eskatu du Habeak, 650 milioi pezetako aurrekontua duen proiektua “bi ataletara mugatzen” delako.

Alde Zaharraren biziberritzea “lehenetsuneko lana” dela esan dute, baina, “Alde Zaharrak dituen beharren inguruan azterketarik egin gabe aurkeztu da plana”. ●



## Zubia zabaltzeko obrak geldituta

Sanjuandegi eta Jose Artetxe arteko saihebideko biribilgunea egiteko zubia zabaltzearen obrak geldituta daude. Diputazioak izendatu zuen obra. Sondeoak egin eta lurra material txarra duela eta nola egin aztertzen ari dira.



Zabalduko den zubia. / N.U.

## Alde Zaharreko proiektu bat behin-behinekoz onartua izan da

Udalak Alde Zaharrerako proiektu bat eskatu zuen eta udalbatzarrean behin-behinekoz onartu da. Jendaurrean proiektua ikusgai egon da eta helegiteak ere jaso dira. Orain helegiteak aztertu eta proiektuaren inguruko txosten teknikoa egin behar da. Eta ondoren, behin betirako onarpena eman edo ez aztertuko da. Proiektuaren arabera, aldaketa handienak Santiago kalean eta Perez Arregi plazan egingo dira.

## pertsonajie



## Joxe Mari Iriondo

Joxe Mari Iriondok (Urrestilla, Azpeitia, 1938), 42 urtez kazetaritza jardun ondoren, erretiroa hartu du. 1961ean hasi zen Loiolako Herri Irratian lanean, eta han 22 urte egin zituen, 1983a arte. 1975ean *Telenorte*-n (TVE) euskarazko saioa eginen hasi zen, eta han ere 1983a arte jardun zuen.

Handik Euskal Telebistara pasatu zen, eta EITBn jardun izan du erretiroa hartu arte. 1985. urtean, EITBko zuzendari eta programazio-buru izendatu zuten. Gero, Euskadi Irratiko, Radio Vitoriako eta Radio Euskadiko zuzendaria izan zen (1989-1998). Eta 1998tik gaur egun arte *Aire, Aire*, *Berriketa Gutxi* eta *Esanak*, *esan* saioak egin ditu Euskal Telebistako lehenengo katean. ●

## zer dago gaixki, zer sobran, zer faltan?



**ERANTZUTEKO EPEA:** Irailak 19 (ostirala)

**HELBIDEA:** Uztarria, Julian Elorza Hiribidea 4, 1.a ezkerre; edo 227 posta kutxa (Azpeitia)

**AKATSA ADIERAZI** (idatziz edo boligrafoz):

**IZEN-ABIZENAK:**

**TELEFONO ZENBAKIA:**

**IRABAZLEARENTZAT SARIA:** Haurtxoa dendak emandako erosketa txartela

## AURREKO ARGAZKIYE...



## ...ETA SOLUZIUYE



## IRABAZLIE: Maria Jesus Sorozabal



Maria Jesus Sorozabal izan da 42. garailea. Gotain dendak emandako lurrina irabazi du. Argazkian, Maria Jesus Sorozabal irabazlea —eskui-nean— eta Gotain lurrin dendakoa ageri dira.



“Jendeak nahiago du ondo abesten duen bat ikustea musikari on bat baino. Identifikatuago sentitzen da abeslariekin”

**Xabier Saldias**  
(Egan musika taldeko abeslaria)




Edurne Ezenarro. / UZTARRIA

“Ez nuen espero ‘Bizizaleak’ programa nik irabaztea. Nik neuk partaideen artean beste faborito bat neukan”

**Edurne Ezenarro**  
(Artzaina eta ‘Bizizaleak’ saioko irabazlea)

# Aitor Zubillaga

Plater tiroan munduko txapelduna



Aitor Zubillaga, Munduko Txapelketako koparekin, udaletxean egin zioten harreran. / ION ARANBURU

## «Azkenean, aurten lortu dut Munduko Txapelketa irabaztea»

**Ion Aranburu** / Aitor Zubillaga da munduko plater tiroko txapelduna. Zubillaga kamioi gidaria da lanbidez, eta txikitatik datorkio plater tirorako afizioa. Udaletxean udal ordezkariak —Julian Eizmendi alkateak eta Kandido Mitxelena Kiroletako batzordeburuak— harrera ere egin zioten.

• **Gustura?**

Bai. Azkeneko zortzi-hamar urtean lehen hamarren barruan ibili naiz; aurten, azkenean, lortu dut txapelketa eskuratzea. Espainiako txapelketak-eta irabazi izan ditut, baina lehen aldia da munduko txapelduna izatea lortzen dudana.

• **Nolakoak dira plater tiroko txapelketak?**

Mundu mailan jokutzen da plater tiroa. Bartzuk selekzioarekin joan ohi dira, eta besteak, berriz, norbanako moduan. Mundu osoko jendeak parte hartzen du. Ni azken zazpi urteetan Espainiako selekzioarekin joan izan naiz Munduko Txapelketara, baina norbanako bezala ere askotan joan izan naiz. Urtero txapelketa estatu batek antolatzen du, eta aurten Espaniari egokitu zaio; Alacanten jokatu da. Baina Italiara, Portugalera, Ingalaterrara eta Frantziara-eta mugitu behar izan dut txapelketatan parte hartzeko.

• **Zer asmo daukazu orain?**

Espainiako Txapelketa oraindik amaitu gabe dago. Ni lehen postuan nago, beste laurekin berdinduta. Txapelketa amaitzeko lau lehiaketa puntuagarri falta dira. Horretaz gain, irailaren 13an eta 14an Madrilen Munduko Kopa eta I. Kopako lehiaketak jokatu dira. Lehiaketa horietan parte hartzeko asmoa daukat, dagoneko sailkatuta bainago. Datorren urtean Italian eta Portugalen Europako Txapelketako probak jokatu dira, eta hara ere joango naiz. Renon ere (Canada) beste lehiaketa bat dago, eta hara ere joateko asmoa dut. •

**ORDULARI**

JOSE ARTETXE, 10  
Tel. 943 81 52 44

**ERAKUSKETA:**  
Eliz kalea, 12 - behea  
Tfnoa. eta faxa: 943 81 12 12  
**BILTEGIA:**  
Landeta Hiribidea, 19  
Tfnoa. 943 15 16 66  
20730 AZPEITIA  
E-mail: iturralde@euskalnet.net

**Bainuak eta bainu osagarriak**  
ESKAINITZEN DUGUNA

Iturgintza  
Berogailua, klimatizazioa, EUB eta berauen mantenu lanak  
Gasa (EG-IV kategoria)  
Erregai likidoak

ITURRALDE Iturgintza S.L.

**LORE SORTAK**  
Koroiak  
Lore Apaingarriak

Etxeetarako  
Zerbitzua Dugu

Tel.: 943 81 51 87  
Loiola-Bide, 25 - AZPEITIA

**PILDAIN**  
inmobiliaria

lizkale, 22 • Tf. 943-812167 • pildain@jet.es

**TABERNA**

**LOKOTX**

Telfnoa.: 943 151086  
Enparantza Nagusi

Euskal Herria, 34  
20730 AZPEITIA  
Tel.: 943 15 16 40

**Ekain**  
ALBAITARI KLINIKA

Larrialdiak:  
943 15 16 40



**motxien**

**Arrasatear bat kartel lehiaketan irabazle**

Oxel Arrieta Balanzategi arrasatearrak irabazi du XXI. Euskal Antzerki Topaketetako kartel lehiaketa. Arrietak 900 euroko saria jasoko du. Kartel irabazlea erabakitze-ko epaimahaiaren iritzia eta kartel erakusketan izan diren ikusleen puntuaketa kontuan izan dira. Kartel lehiaketan 22 lanek parte hartu dute.

**Aitor Aranguren, Diputazioko Ingurumen buru**

Aitor Aranguren, aurreko legealdian Azpeitiko Udalean EAko zinegotzi eta Ingurumen batzordeko burua izan zena, legealdi honetan Gipuzkoako Foru Aldundiko Ingurumen alorreko zuzendaria izango da.

**Txekorrarekin ateratako dirua, Eritreara**

Santiyuetan herriko harakinek prestatutako txekorrarekin ateratako dirua Eritreako Cunamas tribuko 25 familia buru lurra landatzen-eta prestatzeko erabiliko da.



**SOKAMUTILA ENTZIERROAN.** Aritz Segurola, Azpeitiko sokamutila, Iruñeko San Ferminetan uztailearen 9ko entzierroan ageri da irudian (eskuinean, Realeko elastikoarekin). *Berria* egunkarian azaldu zen irudia uztailearen 10ean. Azpeitiko sokamuturrerako entrenatzeko ote zebilen entzierroan zezenaren aurretik?



**ARGAZKITAN TXAPELDUN.** Juan Joxe Agirrek irabazi du aurrenez egin den Azpeitiko I. Argazki Rallya 12x12. Hamabi argazkirekin lortu du txapela; argazkian, txapelarekin.

**Amenabar**  
DENDA

gortinak, ohazalak, edredoi nordikoak ...

Eliz-kale, 32-behea - Telf/Fax: 943 15 06 97

ACADEMIA DE FRANCES  
FRANSES AKADEMIA

apunta zaitez!

allons y 15 00 92

Bustinzuriko Arrabala, 12 - 1

**EPELDE INMOBILIARIA**

Goiko Kale, 1 - Behea  
Tfona/Faxa: 943 15 03 31  
20730 AZPEITIA

AEPI  
A.E.P.I. 20/46

Irudiekin, Iraurgi bailararen zerbitzura

**KAITO TELEBISTA**

Grabatutako bideoen kopiak egiten dira

81 53 35

Zoruen estaldura: kortxo, moketa, sintasol...  
Paper pintatuan aukera handia

**URBISTONDO MARGOAK**

"KOLOREAREN ESPARRUAN EZ DUGU MUGARIK"

Salbe Auzunea, 35 behea 20730 AZPEITIA - Urrut.: 943 81 57 81



# AZPEITIARRAK PRESOEN ALDE BARAUAN

Presoen kontrako erasoen kontra, eta Barandalla presoaren egoera bereziki nabarmenduz, hainbat azpeitiar baraualdian izan dira azken asteburuetan. Denera hamalau txanda egin dira

Iban Arregi

**B**arandallari nahita luzatu zaio sufrimendua, ez da kasualitatea". Horixe zioen Koldo Morrasedek, Bautista Barandallaren konfiantzako medikuak uztailaren 17an, *Berria* egunkarian —gaixorik dago, larri, eta dagoeneko hiru ebakuntza egin dizkiote preso etxarriarri, baina oraindik preso dago, 92. artikulua ukatu egin diotelako behin eta berriz—. "Barandallaren egoera larria presoek kolektiboak oro har bizi duen egoera jasangaitzaren adibide garbia da". Horixe esan diote, berriz, Azpeitiko Amnistiaren Aldeko Mugimenduko kideek Uztarriari. Horregatik ekin zioten martxoaren 13an txandakako baraualdiari, "presoen kontrako erasoerik stop esateko, Barandalla askatu esateko". Txandakako baraualdiaren lehen fasea uztailaren 26an bukatu zen, presoek eta iheslarien aldeko egunean.

## 14 TXANDA, 80 LAGUN.

Ez da nolanahikoa bost hilabete hauetan lortu dutena: hamalau asteburutan barau egin dute hamalau taldek, 24 orduz —Askatasuna, AGZ, Emakume Taldea, Gazte Ekimena, Etxerat, Euskalgintza, kazetariak, bertsolariak, Lagun Onakeko jokalariek, Elkarri-Eliza, Segi, Habea, gazte koadrila bat eta Iksale Abertzaleak—; denera 80 lagun inguru izan dira barauan bost hilabeteotan.



## Lehen txanda, amnistiaren aldekoek

**T**xandakako baraualdiari martxoaren 15eko asteburuan eman zitzaion hasiera. Eta, nola ez, ekimenaren bultzatzaileek, Azpeitiko Amnistiaren Aldeko Mugimenduko kideek eman zioten hasiera. Hurrengo hilabeteetan barauan ez, baina gainontzeko eragileen baraualdiak antolatzen eta koordinatzen aritu dira, besteak beste, goiko argazkian ageri diren lagunak.

## Festatan ere, presoek aldeko ekitaldiak

• Urtero bezala, San Inaziyuen aurreko larunbatean presoek eta iheslarien aldeko eguna antolatu zuten aurten ere. Egun horretan, uztailaren 26an, eman zitzaion bukaera txandakako baraualdiaren lehenengo faseari. Uztailaren 26an, arratsaldeko zazpitan, manifestazioa egin zen, igerileku aurretik irtenda. Manifestazioa zabaltzen lekukoa joan zen, ur botila bat; martxoaren 15etik aurrera barauan izan diren taldeek eraman zuten lekuko hori, txandaka.

Larunbat horretan, manifestazioa eta gero, 21:00ak aldera, afaria egin zen azoka plazan, eta ondoren ekitaldia. San Inaziyuetan izango da presoek aldeko ekitaldi gehiago ere. Hala, San Inaziyo bezperan, 11:30ean, kontzentrazioa egingo da plazan, urtero bezala. San Inaziyo bigarrenegoz —abuztuaren 1ean—, berriz, Loiolan egingo da kontzentrazioa, goizeko hamar eta erdietan. "Presoen aldeko ekimenetan parte hartzera gonbidatu nahi dugu jendea", diote antolatzaileek.





## Sektore askotako jendea

**A**zpeitiko hainbat sektorek hartu du parte *Presoen kontrako erasoei stop! Barandalla 92. artikulua orain!* lelopean egin den baraualdian, aldameneko argazkietan ikus daitekeenez —goiko argazkian Elizako eta Elkarriko ordezkariak ageri dira; behean, ezkerrean, Gazte Ekimeneko kideak; behean, eskuinean, Jabi Odriozola presoaren koadrilakoak—. Azken batean, hainbat talde inplikatu dira ekimenean. Hauxe zioen gazteen ordezkari batek: “Gazteok ere, gizarteko parte garen heinean, presoek bizi duten egoeraren kontrako borrokan inplikatu egin behar gara”. Talde eta eragile horietako denetako ordezkariak ere inplikatu egin dira, eta larunbat eguerditik igande eguerdira arte egon ziren batere jan gabe; denbora horretan, euskal presoek egotzen eta Euskal Herriko egoera politikoaz gogoeta egiteko ere aprobetxatu zuten egonaldia.



## Herriko kazetariak ere bai

**A**zpeitiko hainbat kazetarik ere egin zuten baraualdia —maiatza-ren 3tik 4rako asteburua egin zuten Sindikatu Zaharrean sartuta—. Presoen egoeraz eta politika orokorrak ez ezik, gaur egungo kazetaritzak gai horiek nola jorratzen dituen aztertu zuten, besteak beste, han izan ziren bitartean.

## Eta senideak, nola ez

**B**eraiek dira, ziurrenik, “presoen egoera gogorra” gertuen bizi dutenak, egoera gehien pairatzen dutenak. Gurasoak, anai-arrebak, senideak. Azpeitiko presoek eta iheslarien senideen ize-nean, Etxerat elkarteak ere txanda bat egin zuen Sindikatu Zaharrean. ●





## FESTAK

**U**rtean zehar askotan hitz egiten dugu hilabete baten bukaeraz eta bestearen hasieraz. Bukatu zaigu hilabete honetako egun sorta, egutegiko paisaiarekin aspertuta gustura kentzen dugu bertako orritxoak, eta egun sorta berria asmo, proposamen eta ametsez josten dugu. Azken finean, segundo batzuez bada ere, hil aldaketak badu gure eguneroko elkarriketetan tartetxorik.

Azpeitian, aldiz, hilabete baten bukaerak ez du bukaerarik, eta bestearen hasierak denboraren nozioa galtzen du edalontzi, garagardo, balantza eta *morreo* giroen artean. Uztail bukaera eta abuztuaren hasiera poltsa berean sar ditzakegu, festa usainean. Batak besteari inor konturatu gabe pasatzen dio lekukoa; agian lanean harrapatuko gaitu, edo bestela kale buelta bat ematen, edo agian disimulurik gabeko begiradak jaurtikitzen.

Gure herriko festek ez diote hilabeteari amaiera ematen, ez dute hil berri baten jaiotza ospatzen. Gure herriko festak opor usainez mozkortuta etortzen dira, eta oporrak dira gure herriko festen denbora erreferentzia bakarrak. Herritarron artean eguzkiari begira tripaz gora etzanda egoteko, abuztua izan ohi da hilabeterik desiratuena. Beraz, oporretara abiatu aurretik festak ezin galdu azpeitiar batek, nahiz eta burrunba hotsa belarrietan sumatu aurretik kanpora joaten denik ere badagoen.

Modu batera edo bestera, modu bateko edo beste programazioak irentsi aurretik, festei begira, aurrena egiten den hausnarketa kaleratuko dut: zenbat parranda egun posible dauden festetan, eta horietatik zenbat aprobetxatuko ote ditugun. Horrelako uneetan hasten dira gure parranda iraupen eta sasoiaren inguruko zalantzak agertzen.

Ondoren, festetako edukietan jarriko dut arreta: batetik, kolorez jositako argazkiz hornituriko liburuak denbora pixka bat lapurtuko dit, aurpegi ezagunik ikusten ote dudan edo ez tentuz begiratuz. Zalantzak sortzen zaizkit bertan azaltzen diren argazki eder horiek beste libururen batean ikusi ez ote ditudan, baina tira. Argazkietatik edukietara pasatzen naiz, zerbait berria aurkitzeko asmoz, eta bertako testuek loaren bidean jarri naute. Egunez eguneko ekitaldiak erreparatu ditut, eta ez dut nire lagunengan pentsatu, ezta nire buruarengan ere. Segituan telefonoa hartu eta Irunen bizi den izebari deitu diot, aurtengo festetan egingo diren ekitaldien berri emateko. Hura oso gustura etortzen da Azpeitiko festetara.

Arratsaldean, etxera bidean, eta ohiturari jarraituz, postontzira gerturatu naiz eta iragarki orrien tankera-

### HILEKO GALDERA.

Norbait  
ba ote doa  
oporretan  
Altzürüküra?

ko idazki batzuk aurkitu ditut. "San Inaziyuetako programaziyue". Igoailua hartu eta begiradaxo bat bota gabe ezin egon. Aurkezpen, jarraipen eta amaierako testuen bila hasi naiz orriotan, baina ezin aurkitu. Arreta gehiagoz begiratu ondoren bertan irakur nitzakeen ekitaldiei begira denbora gehiago pasa dut, noiz parte hartu, nola parte hartu, norekin parte hartu. Gertuago sentitu ditut iragarki tankerako orri haiek, liburu koloreztatua baino, ez dakit zergatik, baina hala sentitu dut.

Kanpotarrek kalean irribarrea paseatzen duten bitartean, herritarrak atera ezineko esfera batean murgiltzen gara, parrandetatik ametsetarako bidea behin eta berriro errepikatuz. Kanpotarrak saltzaile bakartien egonaldi amaigabeen lekuko diren bitartean, herritarrak goizeko orduetan tripako zaratak isiltzeko, hamburgesa eta pataten morroi gara. Edo agian hobeto legoke hauxe esatea: kanpotar asko argazki koloreztatuz hornituriko programen jarraitzaile diren bitartean, herritar batzuk etxeko produktuen dastatzaile izaten jarraituko dugu.





'Literatuzta'

# 'Literatuzta'-ren 1. zenbakia kalean da dagoeneko; jende ugari bildu zen aurkezpean

**Uztarriaren datuak**

Argitaratzailea: Uztarrria Kultur Koordinadora  
 Egoitza: Julian Elorza Hiribidea 4, 1.a ezkerria (Azpeitia).  
 Telefonoa eta faxa: 943 - 15 03 58  
 Posta elektronikoa: [uztarria@topagunea.com](mailto:uztarria@topagunea.com)

Web orria:

[www.uztarria.com](http://www.uztarria.com)

Posta kutxa: 227, Azpeitia  
 Inprimategia: Gertu  
 Tirada: 1.900 ale  
 Lege gordailua: SS-860/2000

**aldizkari honen laguntzaileak**



AZPEITIKO UDALA



Gipuzkoako Foru Aldundia



EUSKO JAURLARITZA Kultura Saila

Uztarrria Kultur Koordinadorak ez du bere gain hartzen aldizkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzukizuna



Igor Aranbarri, aurkezpeneko saioaren une batean. / IBAN ARREGI

Paraje zoragarria aukeratu zuten *Literatuzta* osatzen aritu diren gazteek: Enparan dorretxearen atzeko zelaia. Eguraldiak lagundu zuen. Giroak ere bai. Denak bat eginda, eta gazte talde baten lanari eta gogoari esker aurkeztu zen *Literatuzta* liburuxka uztailaren 18an.

*Literatuzta* liburuxkaren lehen zenbakia bideo batekin aurkeztu zuten hasieran. Ondoren gazteak, banan-banan, idatziak irakurtzera irten ziren zelaia, marrazki bat pantailan eta bi koadro zuhai-

tzetatik zintzilik zirela. Narrazioa, poesia, ipuinak, bidai kontaketak... Hiru toki ziren irakurgune, txandaka. Jende asko, batzuk eserlekuetan eserita, beste asko zelaian.

Halaxe aurkeztu zen dagoeneko kalean dagoen *Literatuzta*. Une horretatik aurrera, eta aldizkari honekin (Uztarriarekin) batera, bazkideek doan jasoko dute etxean, eta nahi duen orok eskuragarri izango du herriko kiosko eta liburu-dendatan, hiru euroren truke.

**albiste txikiyek**

## Porran 109 partaide; iaz 83 izan ziren

Uztarriak 2003ko Tourra- ren inguruan antolatutako porran 109 lagunek eman dute izena; beraz, guztira 1.635 euro jaso dira. Sariak San Inaziyo bezperan banatuko dira, 20:00etan, Uztarriaren txosnan. Sariak, urtero bezala, partaide kopuruaren arabera dira. Aurten lehen saria (jasotakoaren %40) 654 eurokoa da, bigarrena (%20) 327 eurokoa eta hirugarrena (%10) 163,5 eurokoa. Uztarrria %30ekin geldituko da, 490,5 eurorekin. Iaz baino 26 partaide gehiago izan dira.

## Hurrengo zenbakia, urrian

Datorren Uztarrria aldizkariaren zenbakia (44.a) urriaren lehen ostiralean banatuko da. Izan ere, abuztuan Uztarriak oporrak hartuko ditu, eta, beraz, irailean ez da aldizkaririk kaleratuko. [www.uztarria.com](http://www.uztarria.com) ere abuztuan oporretan izango da.

669 bazkide gara jada

# EGIN ZAITEZ BAZKIDE UZTARRIAN

Urtean 21 euro (aldizkaria, bi liburu, 'Literatuzta') / Bestela egin harpidedun (aldizkaria soilik; kontuarena ez beste guztia bete)

IZEN-ABIZENAK: \_\_\_\_\_

HELBIDEA: \_\_\_\_\_

HERRIA: \_\_\_\_\_ KODE POSTALA: \_\_\_\_\_

TELEFONOA(K): \_\_\_\_\_ POSTA ELEKTRONIKOA: \_\_\_\_\_

KONTU KORRONTEKO ZENBAKIA (20 digitoak): \_\_\_\_\_

Julian Elorza Hiribidea, 4, 1.a ezkerria • 227 posta kutxa • Telefonoa eta faxa: 15 03 58 • Posta elektronikoa: [uztarria@topagunea.com](mailto:uztarria@topagunea.com)



Badatoz festak. Legezko nahiz legez kanpoko drogek protagonismo disimulatua hartuko dute. Ikerketa batek Azpeitiko gazte askok drogak hartzen dituela dio

# DROGAZ JANTZITAKO PARRANDAK

**Testuak: Oihana Elduaien**

**S**an Inaziyetan, beste festa gehienetan bezala, legezko nahiz legez kanpoko drogek leku ukaezina dute. Aurten ere, beste urteetan bezala, tabernetako kutxek, alkoholaren kontsumoa tarteko, izugarriko betekada hartuko dute, eta komunetan ere txiza ez den beste zerbait egitera doan jendeak ilarak handitu eta makalduko ditu.

Ezagarri fisikoak aldatzen dituen borondatez hartutako sustantzia kimiko oro da droga, Osasunaren Munduko Erakundearen arabera. Gure artean ezagunenak alkohola eta tabakoa dira, legearen babesa dutenak. Hala ere, ezin da ukatu legez kanpoko drogek Azpeitian duten presentzia, legez kanpokoak izanagatik gutxiago hitz egiten bada ere.

Herrian dagoen droga kontsumoaz kezkatuta eta "Azpeitiko gazteek drogekiko dituzten pertzepzio eta harremanak" aztertu asmotan, datu bilketa egin du Siadekok, Udaleko Drogen Aurrikuspenerako Mahaiak eskatuta. 13 eta 25 urte bitarteko 357 gazte azpeitiarrek betetako inkesta batzuekin egin dute ikerketa. Azpeitian kalamuak izugarriko presentzia duela


nabarmen geratu da: inkesta bete zuten gizonezkoen %34,4k nolabaiteko maiztasunarekin erretzen ditu porroak, baita emakumezkoen %26,7k ere. Aldiz, alkohola eta legez kanpoko gainontzeko drogen kontsumoa asteburuetara mugatzen da, gehienetan. Legez kanpoko beste drogek ez dute kostoak adinako tamainarik hartzen, baina gizonezkoen %5,8k anfetaminak hartzen ditu, eta emakumeen artean %3,7 dira droga horiek nolabaiteko maiztasunez kontsumitzen dituztenak.

Asteburuetan Azpeitiko gazteen %87,1k edaten du alkohola. %25,3k gehiegizko edalea dela aitortzen du, eta %26,01ak alkoholikoa izan daitekeela dio.

Baina zergatik kontsumitzen dira drogak? N.U.B.-k —ez du izena eman nahi izan; ondorengoek ere ez— Uztarriari esan dionez, festak "drogatuta" pasatzen ditu. Ez omen du legez kanpoko drogarik hartzen, "kalamua salbu", baina San Inaziyuek "mozkor-mozkor eginda" pasatzen dituela dio. "Ohitura izango da, agian", dio. J.B.I.-k *speed* "arrastoren bat edo beste" hartzen du jaietan, "mozkor handiegia harrapatuta-edo nekeak erasotzen" dionean. "Azpeitiko gazteok ez daki-gu drogatu gabe parranda egiten; batzuek ▶


## M.T.S.

"Pertsona bakoitza du, eta droga hori azpimarra





# zak izaera bat hienek izaera en dute”



M.T.S. trapitxeroa da, baina Uztarriari esan dionez, ez du droga askorik *mugitzen*, Orain, adibidez, lanean ari denez, ia ez omen du *mugitzen*.

● **Zein droga *mugitzen* duzu?**

Nik, kostua besterik ez.

● **Zein adinetako jendeak erosten dizu?**

Adin guztietako jendea etortzen zait eskean, baina gaztetxoei ez emateko joera dut. Erreparoa ematen dit gazteei kalamua saltzeak, eta ez daukadala esan ohi diet. Hortik aurrera, edozein adineko jendea dago. Hemezortzi bat urtetik hasi, eta mugarik gabe. 50 bat urteko jendeari ere saldu izan diot.

● **Droga saltzetik bizi al daiteke bat Azpeitian?**

Bai, bizi daiteke. Nik neuk ez dut asko *mugitzen*, eta lanik egiten ez dudanean nahiko larri ibiltzen naiz. Denbora asko izaten dut libre, eta gastatu ere gehiago egiten dut. Hala ere, badago diru pila handia egiten duenik, eta horiek diruz erraz ibiltzen dira.

● **www.uztarria.com-en drogei buruzko eztabaida egon zen iaz. Han honakoa esaten zen, besteak beste: “Azpeitian edonork daki zein diren trapitxeroak, baina, hala ere, lasai bizi dira”.**

Arrazoi puntua badago, baina beti ez da horrela. Ni lasai ibiltzen naiz, gutxi mugitzen dudalako. Poliziarri, agian, ez zait interesatuko nik bezalako kopurua mugitzen duen bat. Baina badago Azpeitia inguruan asko *mugitzen* zuen jendea, eta orain kartzelan dagoena. Asko *mugitzen* duena ez da hain lasai ibiltzen.

● **Drogak legeztatzearen alde al zaude?**

Bai. Informazioa baldin badago, bai. Kalamutik haratago beldurra ere ematen dit, informazioa behar da. Alkohola legezkota da, baina horrek ere barruak usteltzen ditu, eta nahi duenak du eskura. Informazioa da garrantzizkoena.

● **Azpeitian mugitzen den drogak nolako kalitatea du?**

Denetik dago. Ni neu onena edukitzen saiatzen naiz. Argi dagoena zera da, kalitatea nahi duenak ordaindu egin

“Nahi izanez gero diru asko atera daiteke droga salmentatik. Asko darabilenak erraz bizitzeko adina ateratzen du Azpeitian”

behar duela. Merke saltzen dutena kasikarra izaten da normalean. Zerbaitekin nahasten dute, eta kantitate gehiago lortzen dute; horrela gehiago dute saltzeko.

● **Festetan gehiago saltzen al duzu?**

Ni ezer gabe ateratzen naiz jaietan, egia esan behar bada. Nik parranda egiten dut festetan, eta aldrebes samarra naizenez, dena galtzen dut. Ez galtzearren etxean laga ohi dut. Arratsaldeetan-eta bai, gehiago saltzea litekeena da. Hori *pitxu*-arekin (*speed*) eta antzekoekin gehiago gertatzen da. Hori parrandarako droga da, eta ziur nago horrekin ibiltzen direnak gehiago salduko dutela.

● **Beti jende bera etortzen al zaizu?**

Normalean bai. Ezezagunak ere etortzen dira, baina nik ezer ez dudala esaten diet eduki arren. Lagunen baten ezaguna bada eta ezagutzen duela esaten badu, ematen diot, baina bestela ez.

● **Segik zera dio: “Txakurradak trapitxeroak kolaborazio polizialerako erabiltzen ditu”.**

Ez da nire kasua. Nik Guardia Zibila ez dut begibistan ikusi ere egin nahi. Baita kolaboratzen duen jendea egotea, baina ez nuke politikarekin lotuko. Nik uste dut Poliziak trapitxero txikiari zerbaite galdetzen badio, trapitxero handiaren inguruan izango dela. Ez dut uste Azpeitian gisa horretako kolaboratzaileirik dagoenik.

● **www.uztarria.com-eko eztabaidan: “Nik ez nuke nahi nire tabernan, taldean, koadrilan, trapitxerorik egoterik”.**

Nik ez dut horrelako ezer nabaritu. Nire inguruan denek erretzen dute. Gainera, porrua edonork erretzen du gaur egun. Niri ez zait gustatzen jendeak ketamina saltzea. Hori elefanteentzako anestesia da, eta kalte handia egiten du. Tripiek eta pastillek ere beldurra ematen didate. Lepoan haizkorakada bat bezala dira. Eta kostua, berriz, zerra batekin pixkanaka-pixkanaka mozten joatea bezala da.

● **Drogek gazteen konformismoa, indibidualismoa omen dakarte.**

Norberak izaera bat du, eta drogek izaera hori azpimarratzen dute, nire ustez. Ni triste nagoela mozkortzen banaiz, negarrez has ninteke, eta alai banago, oraindik eta alaiago jarriko naiz. Nik uste dut hori droga gehienekin gertatzen dela. Aingerua ez da infernuko txikito bihurtuko, eta ezta alderantziz ere.






► arrastoak, besteek porroak eta besteek izugarritzko *legatza*, baina denak drogaren eraginpean. Agian, errealtate nazkagarri honetatik aldegitarren izango da, ez dakit". A.E.Z.-k, berriz, "parranda bakoitzean" hartzen ditu arrastoak, "normalean *speed*-a; ketamina ere hartu izan dut batzuetan, eta orain MDMA dago modan". Gizartea aldatu egin da A.E.Z.-ren esanetan: "Oraingoa eroso da, eta ondo pasatzen dugu. Beraz, ez dugu aldatzeko ezer egiten". Kontua da inork ez dakiela zergatik, baina drogatu, drogatzen direla.

Zergatik kontsumitzen duten ez dakite, baina badakite zergatik ez. N.U.B.-k arrastoekiko "kuriostatea" du, baina, "beldurra" ematen diote. "Ez dakit nire gorputzak nola erreazionatuko lukeen, eta, nire burua ezagututa, beldur naiz gustatuz gero menpekotasunean erortzeko". J.B.I.-k dio *speed* arrastoak ez direla "beste munduko gauza", baina N.U.B.-ri ez dio azalpen horrek "balio", eta "orduaz hartzen duen bakoitzak zergatik errepikatzen du ba?", egin dio galdera. Bestea, isilik geratu da.

Gauza batean behintzat, ados daude hirurak: "Drogak hor daude, eta erabiltzeko dira. Kontua ondo erabiltzen jakitea da, eta hori ez da batere erraza".

**"OSO GAIZKI PASATU DUT"**. A.E.Z.-k gaur egun merkatuan dauden droga gehienak probatu ditu, eta menpekotasunean ere egon dela aitortzen du. "Astero-astero hartzen nuen, gehienetan *speed*-a, eta kalte egin zidan. Izugarritzko beheraldiak ematen zizkidan. Zuloan nengoen, baina asteburua iritsi eta berriz ere sartu egiten nuen, hobeto jarriko nintzelakoan". Bere buruarekin konfiantza galdu izana da, bere hitzetan, gertatu zaion gauzarik okerrrena. "Nire ingurukoek nirekin ez zutela egon nahi pentsatzen nuen, dena zen txarra, ezkorra". Hala ere, bere buruari kontra egin ziola dio, eta "gainditu" egin zuela. "Kostatu egin zitzaidan; *bajoi* bat baino gehiago pasatu nituen". Orain, droga "erabiltzen" ikasi egin duela esaten du, eta "askoz hobeto" sentitzen dela. Tamaina hartu arren, beldur pixka bat ere badio "oraingo" drogei. "Izan ere, ez baitakigu oso ondo zein ondorio ekarriko dizkigun".

"Nik ondo pasatzen dut drogaren eragin-



Legezkanpoko droga desberdinak kontsumitzen hasteko batazbesteko adinaren arabera (%)



**IKERKETA.** Siadekok Azpeitiko gazteek drogekin duten harremanari buruz ikerketa egin zuen Azpeitiko Udalaren enkarguan. Goikoak dira ateratako ondorio nagusiak.

pean, bestela ez nituzke hartuko, hori garbi dago", dio hark. "Baina zein droga hartu jakin egin behar da". A.E.Z.-k ez du pastilarik hartzen. "Niri egoera kontrolatzea gustatzen zait, eta pastilekin ez dut ez egoera eta ez ezer kontrolatzen".

Drogek une onak ekarri dizkiote, baina baita txarrak ere. "Bizitzako parrandarik onena" ketamina hartu zuen aurrenekoan egin zuela dio A.E.Z.-k, baina ondoren hartutako beste hiru alditan "onik ez" ziola egin. "Bigarren aldia mareatu egin nintzen, eta hirugarrengoa botaka jardun nuen. Hala ere, laugarren aldia izan zen okerrrena, herri bateko plazan etzanda geratu nintzen, eta ezin nintzen altxatu. Nahi nuen, baina ezin".

Drogarik "txarrena" tabakoa dela dio, "inongo zalantzarik gabe. *Speed*-ak eta antzekoek adikzioa sortzen dute, baina ez tabakoak beste".

**"GAZTERIA ZULO ILUNEAN"**. Azpeitiko Segi gazte erakundeak drogen erabilerrari buruzko eztabaida egin zuen, eta "gazteria erabat galduta egoteko arriskuan" dagoela argi eta garbi ikusi, droga sintetikoek "epe ertainera eragiten dituzten ondorioak medio". Hala ere, drogak ez dira "ez onak eta ezta txarrak ere", Segiren esanetan, "drogen erabilpenean dago gakoa". "Desfasatzeko kultura nagusitzen" ari dela dio, "kolektibitate ideia oro baztertu eta norberaren burua besteen gainetik jarrita". Gazteriaren indarrak "banatu nahi ditu etsaiak", Segiren aburuz, gero "bere erara maneiatzeko".

Euskal Herrian "zabaldua dagoen droga sareak, erabilpen polizialak" dituela dio: "Indar errepresibo ezberdinek, trapitxeroak txantxia polizialerako erabiltzen dituzte, eta euskal gazteon aurkako guda tresna bilakatu dira". Horretaz gain, interes "politiko eta ekonomikoak" ere baditu drogak. "BBVA eta Argentariak izugarritzko etekinak lortzen dituzte diru zuriketarekin, eta euskal gazteria zulo ilun batean murgilarazi eta borroka eta aldarrikapen guztietatik kanpo uztea dute helburu".

Herrian drogek hartutako neurriaren aurrean "inork ezer ez egitea" harriztekoa ez ote den galdera egiten dute. Eta hausnarketa sakona behar dela dio Segik.

**"Gazteriaren indarrak banatu nahi ditu etsaiak, gero bere erara maneiatzeko"**

**Segi**  
(Azpeitiko gazte erakundea)

**"Herri bateko plazan etzanda geratu nintzen, ezin mugituta. Nahi nuen, baina ezin"**

**A.E.Z**  
(herriko droga kontsumitzaile bat)



# Ezaugarriak eta eraginak

Droga bakoitzak ondorio desberdinak ditu pertsona bakoitzarengan. Pertsonaren izaerak, une horretako egoerak, lekuak eta orduan duen lagunak zeresan handia dute drogak sor ditzakeen eraginetan. Hauek dira drogek ekar ditzaketen ondorio nagusiak:



**KALAMUA.** Zigarro bezala erre daiteke, edo opil nahiz pastele-tan jan.

- **Hartu ahalako eragina:** Lasaitasuna; filosofikoki pentsatzeko gaitasuna, sormenerakoa; musikaz gozatzeko joera; zentzumenak biziagotzen dira; muskuluen lasaitasuna; gosea; hitz egiteko zailtasunak; begietan azkura; ahoa lehortu; arnasteko zailtasunak; botagurea; buruko mina.

- **Luzerako ondorioak:** Nerbio sisteman gora-beherak eragin ditzake; desmotibazioa; sormen gaitasunak eta intelektualak murriztu ditzake; gizonezkoen antzutasuna; emakumearen obulazioan gora-beherak; minbizia sortzeko tabakoak baino zortzi aldiz aukera gehiago; menpekotasun psikologikoa.



**ALKOHOLA.** Edan egiten da.

- **Hartu ahalako eragina:** Lotsa galtzea; indarkeri eta se-

xu inpultsoetarako erraztasuna eragiten ditu alkoholak.

- **Luzerako ondorioak:** Garapen fisiko, mental eta emozionalaren makaltzea.



**HEROINA.** Zainetara sar daiteke, baina erre edo musutik ere har daiteke.

- **Hartu ahalako eragina:** Zortzi orgasmo batera baino hobe dela esaten dute.

- **Luzerako ondorioak:** Pentsamendua, arreta eta memoria galtzea; giza jarreretan aldaketa handiak; menpekotasun handia, eta hartzen ez den garaian indarkeriarako joera.



**KOKAINA.** Erre egin daiteke, zainetara sartu edo sudurretik ere har daiteke.

- **Hartu ahalako eragina:** Energia.
- **Luzerako ondorioak:** Paranoiak; pentsamendu prozesua makaltzea; sexu inpotentzia; bihotzeko gora-beherak; burmuintzaren lana moteltzea.



**LSD (AZIDOAK).** Edan egin daiteke, pilula forman jan edo musutik sartu.

- **Hartu ahalako eragina:** Pentsamenduen azelerazioa; koloreen intentsifika-

zioa; ikusmena distortsionatzen dute; geldirik dagoena mugitzen ikusteko joera; denboran eta espazioan ez dauden aldaketak somatzen dira.

- **Luzerako ondorioak:** Puskatze psikotikotarako joera handia; pentsatzeko gaitasuna gutxitu; eguneroko ekintzei mesprezua; norberaren bakartzea; indarkeriarako joera; gizarte ekintzetan edo familiakoetan aldaketak.



**ANFETAMINAK, 'SPEED'-A, DISEINUZKO DROGAK, MDMA.** Pilula edo kapsula

eran har daiteke, musutik edo zuzenean zainetan sartuta.

- **Hartu ahalako eragina:** Adi egotearen eta konfiantzaren sentrazioa sortzen du; energia eta autoestima igotzen ditu; gose eta logure sentrazioak desagerrarazten ditu.

- **Luzerako ondorioak:** Arreta, kontzentrazio eta atentzio gaitasuna gutxitzea; psikosia; apetitoa galtzea; depresioa; nekea.



**TABAKOA.** Erre egiten da normalean; maskatu ere egin daiteke.

- **Hartu ahalako eragina:** Mareatu egin zaitzake.

- **Luzerako ondorioak:** Minbizia sordezake; biriketako arazoak, arnasketakoa; menpekotasuna. ●

**Aliur**  
OKINDEGIA KAFETEGIA  
Loiolako Inazio Hiribidea 6  
943 81 38 01

Egin publizitatea  
**uztarria-n**  
943-150358

**AZKOITIA**  
ERLOJU KONPONKETAK  
Arana, 5  
AZPEITIA Tel.: 943 81 47 12

**PATXO**  
**ERRETEGIA**  
BETIDANIKO SUKALDARITZA  
PARRILA. **Arraina eta haragia**  
BI JANGELA. **60 eta 25 pertsonentzako tokia**  
ON EGIN!  
Pablo VI Auzunea, 16  
Tel.: 943 81 20 40  
20730 AZPEITIA

**CAJA LABORAL EUSKADIKO KUTXA**

**AIZPURU AUTOAK**  
**PEUGEOT**  
Landeta Auzoa - Urrut.: 943 81 23 59

**AMALUP**  
lorazaintza  
● Lorategien proiektuak  
● Zuhaisken kimaketa  
● Lorategi eta zelaien mantenua  
● Belar landaketa eta tepe egur, harri edo txilar jartzea  
943-025319 (Azkoitia)  
679106753 (mugikorra)



## Gerran dabilenari laguntza

● “1938ko herri jaietako programa xumeak, abuztuaren 1erako zezenketako jaialdi bikaina aurkezten zuen, gerrako frenterako, ospitaletarako eta gizarte laguntzarako eta gerran parte hartu zutenei laguntzeko izango zena. Toreatzaile Lalan-

da, Barrera, Pepe Bienvenida eta *El Estudiante* izango ziren. Eta Salamancako Manuel Boyero —lehen *Coquilla*—, zalearen lau zekor toreatuko zituzten.

Karteleren ondotik, gomendio batzuk adierazten ziren egitarauan: ‘Ikuslegoari denon onerako eta ordena mantentzeko,

sarreran adierazitako zenbakiaren eserlekuan esertzeko eskatzen zaie, dagokion lekuan egonez zezenketa amaitu arte, hori baita bere eskubidea.

Eta baita ere eskatzen da, aberriaren alde eta sofritzen ari direnenganako maitasunagatik, ahal dutenek eta aukera dutenek, sarrera bat edo gehiago erosteko Zestoako ospitalean daudenentzat”.




# DATORREN URTEAN SAN INAZIYO EGITARAU BATERATUA?

Aurtengo San Inaziyuetan ere bi egitarau izango dira: Udalarena eta festa herrikoien aldekoa. Baina egin dira saioak bateratzeko, bilera batzuk egin izan dituztelako. Presoen aldeko manifestazio isilean eta afarian egon da desadostasuna

### Nerea Uranga

**S**antiyoak pasatu eta San Inaziyuek gainen dira. Dagoeneko festetako eskaintzaren berri ere bada, eta bi eskaintza daude, azken urteetako ohiturari jarraituz. Bata, Udalak Festa Batzordetik eskainia. Bestea, Festa Euskaldun eta Herrikoien Aldeko Batzordetik datorrena. Dena den, aurten egitarau bakar bat ateratzeko saiakera egin da bien aldetik, baina azkenean ez da posible izan. Igual datorren urtean...

Mikel Ibarzabal Festa batzordeburuaren nahia festetako egitarau “bakar bat” ateratzea da. “Nire gogo handiena gazteekin batera festa bateratua egitea da.





# Entzierroak Azpeitian

• “Oso antzinako kontuez ari da (*El Dia* egunkarian, Ignacio Artetxek entzierroak aipatuz idatzi zuen 1932ko uztailaren 31n), baina ezin da ahaztu beranduago ere entzierroak ospatu izan direla Azpeitian. Zezen-plaza inauguratu zen ur-

tean bertan —1903an— eta 1936a artean Udala entzierroa egiteko prest zegoela, tartean desenkajonamendua sartuz. Entzierroko lasterketaren hasiera Enparan-go etxea eta Beloki errotaren parean zen, Zelailuze pasatu eta zezen-plazara iristen zen Harzubia hiribidea zeharkatuz”.



Zezenak Amue zubian. / MANOLO MADRAZO



Aurten, azkenean, ez dugu lortu baina ni datorren urtean helburu horrekin joango naiz festak antolatzea”, dio Ibarzabalek, aurten horretarako denbora gutxi izan duela esanez, ekainaren 14an hartu zuelako kargua.

Hala, legegaldaren aldaketa gertatu dela eta, Udaleko Festa Batzordekoek berandu deitu dituzte festak antolatzeko bilera irekiak. Baina, hala ere, Festa Herrikoien Batzordekoekin lau bilera egin dituzte. Azken hauek bileretan urteroko aldarrikapena egin dute: festa batzorde irekia sortzea. “Ez dugu nahi bileretan hitz egiten hastea behin festak antolatuta daudenean. Udalak festa batzorde ireki horri festak antolatzeko bitartekoak emango dizkion tresna izan behar du”, dio Aitor Arrizabala Festa Euskaldun eta Herrikoien Aldeko Batzordekoak.

Hala ere, eman nahi zen aurterapausoa ez da eman, ez di-

ra ados jarri egitaraua bateratzerakoan. “Udalak ez du onartu *Euskal Presoak Euskal Herri* leloa duen manifestazio isila eta presoen aldeko afariaren berri egitarauan jartzea. Ekitaldi politikoa dela dio. Gure batzordea, adibidez, herritar batzuk festetarako ekitaldi batzuk antolatzeko prest daudela esanez etortzen bazaizkigu eta aurrekontu handiegia ez baldin badu behintzat, ezin diegu ezezkorik eman”, dio Arrizabalak. •

## ALDAKETAK TXUPINAZOAN.

Aurtengo txupinazoa ez da ohiko izango: ez du alkateak bakarrik botako. Julian Eizmendi alkatea han izango bada ere, berekin izango dira Betizuko Ainara Epelde, Kepa Peñagarikano pilotaria eta Aitor Zubillaga tiro-platokoa.



UZTARRIA

**ISTILUAK TXUPINAZOAN.** Zenbait urtetan —orain bi urte, adibidez—, San Inaziyuei hasiera emateko txupinazoa botatzeko garaian istiluak gertatu izan dira plazan.



JAIETAKO EGITARAUA/PEPE GIL

**BASTIDAK BETI.** Txupinazoa istiluak ez dira, ordea, beti gertatu. Jose Mari Bastida alkate izan zen hemezortzi urteetan beti gertatu zena, berriz, hauxe: beti berak bota izan duela txupinazoa.



# Oilar-jokoan Azpeitikoak nagusi

● "Oilar-jokoak askotan egin ohi ziren Azpeitian garai batean, orduko zenbait egunkaritan irakur daitekeenez. Azkenengo urte hauetan herriko zezen-plazan ere egin ohi zirela kontatu digute, baina hitzetik hortzera egindako kontakizun-

netatik nola atera egunak eta beste zehaztasun asko? Zaila da, ezinezkoa. Hala ere, honatx bizpahiru bitxi polit:

1906ko martxoaren 24an, zenbait oilarborroka jokatu zen Azpeitiko Artetxetarren ostatuko *Circulo Gallistico de los Hermanos Arteche* aretoan. Eibarko hiru

oilarren kontra jokatu zuten, txandan. Jokaldi guztiak Azpeitiko oilarrek irabazi zituzten.

Gero, laugarren saioa, Marduraren oilarrek eta Benantzioarenak jokatu zuten, eta lehenengoa izan zen garaile, berriz ere. Jendetza handia bildu bide zen oilarborroka hauek ikustera. Baita diru asko jokatu ere".

# TIOBIBOEK BAINO BUELTA GEHIAGO

Jose Luis Sanz aurten ere San Inaziyuetan da tiobiboekin: Zumarragatik etorri da eta hemendik Zarautzera doa

**Ion Aranburu**

San Inaziyuetan Betharrametako kirol gunea umeen eta helduen gozagarri diren tiobiboez betetzen da. Azken urteetan, gainera, ez dira tiobiboak bakarrik, tonbolak plazatik kendu zirenetik han jartzen baitira. Hala ere, Mikel Ibarzabal Festa batzordeburuaren nahia datorren urtean, berriz ere, tonbolak plazan jartzea da.

Jose Luis Sanz, Atracciones Sanz-eko nagusia da eta 30 urte inguru daramatza herriz herri umeen desioak betetzen. Familiako negoziolari heldu zion, eta harrezkero Gipuzkoan dabil hara eta hona, gelditu gabe. Haren semeek ere familiako negoziolari helduko diotela dio, eta harro dago. "Ez da ofizio gogorra baina asko

mugitu behar da negozioa aurrera ateratzeko. Gero eta familia gutxiagok jarraitzen du tiobiboekin. Orain beste jende mota bat ari da sartzan eta, laster, profesionalak baino ez dira geldituko".

**URTEAN BI ALDIZ.** Azpeitira urtean bi aldiz etortzen da: Sanjuandegiko festetan eta San Inaziyuetan. Bietara scalextrix-a eta zaldiko-maldikoa ekartzen ditu, tokia ere ziurtatua duelako. Izan ere, urtero enpresa berak etortzen dira Azpeitira eta horiek lekua izaten dute, urteetan etortzen direlako. Enpresa berriren batek etorri nahiko balu, besteren bat erretiratu arte itxaron beharko luke.

Tiobiboen aukera ere urtero bera izaten da. "Tarteka etorri izan da tiobibo berriren

bat baina oso arraroa da. Etorri izan diren berriak normalean helduentzakoak dira". Umeentzako ez omen da egoten berririk, eta betikoek izaten dute arrakasta. "Gustukoena scalextrix-a da". Gainera, beste herrietan ez bezala, Azpeitian tiobibo zaleek ez dute lekuaren alokairua ordaintzen tiobiboen txartelak merkeago jartzeko.

Izatez nafarra da Jose Luis Sanz, Altsasuko, baina ez du denbora askorik ematen herrian. Urtean bi hilabete. Inora ez mugitzeko. Baina orduan ere izaten du lanik, tiobiboak konpondu eta txukuntzeko aprobetxatzen baitu. "Pabiloi bat dugu Altsasun eta han denak montatzen ditugu konpondu eta txukuntzeko". Batik bat urtean zehar Gipuzkoako herrietan ibiltzen da tiobiboekin. "Beste asko Sevilla, Madril eta Espainiako beste hainbat tokitara joaten dira, eta, gainera, urtean bost edo sei hilabetez geldirik egon behar izaten dute. Guk zortea dugu zentzu horretan". Sanzentzat, jaiak Zumaietan hasten dira, San Telmoetan, eta Oñatin amaitu, San Migueletan. "Tiobiboak muntatzen egun bat igaro ohi dugu. Desmuntatu azkarrago egiten dugu, egun erdian".

Sanz altsasuarra Azpeitira Zumarragako festetatik etorri da eta hemendik Zarautzera joango da. ●



**UROLA IKASTOLA**  
AZKOITIA - AZPEITIA BHI

- DBH  
- BATXILERGOAK  
- HEZIKETA ZIKLOAK

**KALITATEA ZURE ZERBITZURA**

<p>Altamira Auzoa z/g 20720 AZKOITIA (Gipuzkoa) Tel.: 943 85 21 74 / 943 85 2265 Fax.: 943 85 28 67 E - mail: azkoitia@urola.hezitek.net</p>	<p>Perdilegi, 3 20730 AZPEITIA (Gipuzkoa) Tel.: 943 81 26 65 / 943 81 37 70 Fax.: 943 81 66 20 E - mail: azpeitia@urola.hezitek.net</p>
<p>Perdilegi, 2 20730 AZPEITIA (Gipuzkoa) Tel.: 943 15 02 28 Fax.: 943 81 16 94</p>	



**AZPEITIKO IKASTOLA**  
KARMELO ETXEGARAI

HAUR HEZKUNTZA-1. EHEN HEZKUNTZA

**KALITATEZKO EUSKAL HEZKUNTZA**

Euskal Herria, 50  
Tel.: 943 812697 Fax.: 943 150830  
E-mail: keikas\_tola@jet.es

20730 AZPEITIA  
(Gipuzkoa)



# San Inazio

oparidenda

alde zaharra




## San Inazio jai zoriontsuak

abuztuan goizez zure zerbitzura

## Borroka grekoerromarra

• “Erramon Garate, *Urrestilla-ko kaminerua*. Ikaragarri indartsua zela esaten dute. Eta borroka grekoerromarrean baino lehen harrijasotzen eta pultsolari ibili

omen zen. Gero, beste kirol denak utzi eta borroka grekoerromarra aukeratu zuen. Europa osoan ibili zen, Raku japoniarra eta munduko beste borrokalari onenekin jokatu. 1920an itzuli zen herrira”.



Jose Luis Sanz tiobibo jabea, Azpeitian. / ION ARANBURU



As.	At.	Az.	Os.	Os.	La.	Ig.
			1	2	3	
4	5	6	7	8	9	10
11	12	13	14	15	16	17
18	19	20	21	22	23	24
25	26	27	28			

## UZTAILAK 29 (asteartea)

- **ERAKUSKETA.**  
Zezen-plazaren mendeurrenaren erakusketa. Jose Arretxe 21ean.
- **HITZALDIA.**  
Gaia: *Torero eta ganaduzaleen arteko adostasun eta desadostasunak*. Zezenzaleen Elkarteak antolatuta. Hizlariak: Victor Mendes toreatzaile ohia eta Azpeitiko laguna, eta Jaime Pablo Romero ganaduzalea. 19:30ean. Sindikatu Zaharrean.
- **KONTZERTUA.**  
Udal Musika Bandaren pasodoble kontzertua. 21:30ean. Plaza Txikian.

## UZTAILAK 30 (asteazkena)

- **TXUPINAZOA.**  
San Inaziyuei hasiera eman ez txupinazoa udaletxetik botako dute Julian Eizmendi alkateak eta Betizu taldeko Ainara Epeldek, Kepa Peñagarikanok eta Aitor Zubillagak. 12:00etan. Gero, Musika Banda, txistulari, dultzinari eta erraldoi eta buruhandien kalejira. Umeentzako suziri japoniarrak. Festa Herrikoien Aldeko Batzordeak antolatuta txarangarekin kalejira 11:00etan. Ondoren, giza-dorrea.
- **HERRI BAZKARIA.**  
Festa Herrikoien Aldeko Batzordeak antolatuta. 14:30ean. Plazan. Ondoren bertsoak, txistea, irrintzi lehiaketa...
- **HAUR JOLASAK.**  
15:30ean. Plazan.
- **BEDERATZIURRENA.**  
Bederatziurrena. 19:30ean. Loiolako basilikan.
- **SUZKO ERROBERAK.**  
Zaragozana su etxea. 23:00etan. Loiolarako bidean.
- **MUSIKA.**  
Nuevo Talisman. 23:30ean. Plazan.
- **KONTZERTUA.**

Ene Bada. 23:30ean. Olazko Amaren Plazan.

- **KONTZERTUA.**  
Txato Plato eta Pin, Pan, Pun Band. 23:00etan. Txosnetan.

## UZTAILAK 31 (osteguna)

- **GOIZ ERESIA.**  
Udal Musika Banda, Biasteriko Dultzinariak eta Izarraitz Txistulari Taldea. 09:00etan.
- **KORPORAZIOA.**  
Udaleko ordezkarien korporazioa Parrokira. 10:10ean. Gero, prozesioa. 10:30ean. Eta ondoren meza santua.
- **INAUGURAZIOA.**  
Zezen-plazaren mendeurrenaren plakaren inaugurazio ekitaldia. 12:30ean. Zezen-plazako zaldien patioan.
- **KONTZERTUA.**  
Udal Musika Banda. 13:00etan. Plazan. Ondoren, Paco Apaolazaren senideei Jose Luis Frantzesenak haren omenez eginiko pasodoblearen partitura eskainiko zaie. Gero, 2002ko zezenketen garaikurren banaketa.
- **ZEZENEN AUKERAKETA.**  
13:00etan. Zezen-plazan.
- **HAUR PARKEA.**  
16:00etan. Plazan.
- **ZEZENKETA.**  
Toreroak: Antonio Ferrera, David Fandila *El Fandi* eta Salvador Vega. Ganadutegia, Torrealta. 18:00etan. Zezen-plazan.
- **KALE JIRA.**  
Tximeleta txaranga. 19:30ean. Zezen-plazatik irtenda.
- **MUSIKA.**  
Carrusel taldea. 20:30ean. Plazan.
- **PILOTA.**  
Eskuzko pilota partida profesionalak. Asegarceko pilotariak. 22:30ean. Izarraitzen.
- **SUZKO ERROBERAK.**  
Zaragozana su etxea. 23:00etan. Loiolarako bidean.
- **MUSIKA.**  
Carrusel. 23:30ean. Plazan.
- **DANTZA.**  
Mrudang Kala Academy Indiako dantza taldea. 23:30ean. Olazko Amaren Plazan.
- **TRIKITILARIAK.**  
Imuntzo eta Beloki. Olazko Amaren Plazan.

- **KONTZERTUA.**  
Herriko talde bat eta Ekon. 23:00etan. Txosnetan.

## ABUZTUAK 1 (ostirala)

- **GOIZ ERESIA.**  
Izarraitz Txistulari Taldeak, Musika Bandak eta Biasteriko Dultzinariak. 09:00etan.
- **ONGI-ETORRIA.**  
Udaletxean Eusko Jaurlaritza eta Gipuzkoako Foru Aldundi-ko agintariei ongi-etorria. Ondoren korporazioan Loiolara.
- **MEZA.**  
Meza Nagusia. Herriko apai-zek eta Donostiako Juan Maria Uriarte gotzainak emanda.
- **AURRESKUA.**  
Agintariei Itsasiren aurre-kuia. 13:00etan. Plazan.
- **ZEZENEN AUKERAKETA.**  
13:00etan. Zezen-plazan.
- **GAZTETXOEN PARKEA.**  
Parke berezia eta jaialdia. 16:00etan. Plazan.
- **GOITIBERAK.**  
Goitibera txapelketa. Arantzetatik behera. 18:00etan. Festa Herrikoien Aldeko Batzordeak antolatuta. Gero Kalejira txarangarekin kalejira.
- **ZEZENKETA.**  
Toreroak: Manuel Jesus *El Cid*, Cesar Jimenez eta Matias Tejela. 18:00etan. Zezen-plazan.
- **KALE JIRA.**  
Los Pasai txaranga. 19:30ean. Zezen-plazatik irtenda.
- **HERRI AFARIA.**  
Afaría Festa Herrikoien Aldeko Batzordeak antolatuta. 20:00etan. Txosnetan. Ondoren kalejira.
- **DANTZALDIA.**  
Alcatraz. 20:30ean. Plazan.
- **PILOTA.**  
Eskuzko pilota partida profesionalak. Aspeko pilotariak. 22:30ean. Izarraitzen.
- **SUZKO ERROBERAK.**  
Astondoa su etxea. 23:00etan. Loiolarako bidean.
- **DANTZA.**  
Eskola Dantza Taldea. 23:30ean. Olazko Amaren Plazan.
- **ERROMERIA.**  
Saioa, Alabier eta Lutxurdio taldearen erromeria. Dantzaldiaren ondoren Olazko Amaren Plazan.

## ABUZTUAK 2 (larunbata)

- **GANTZONTZILLO ETA KULERO LASTERKETA.**  
Etxe Zuritik plazara. Parte-hartzaileei Euskal Herrian Euskarazen kulero eta gantzontzilo bana oparituko zaie. 07:00etan. Gero, txokolata-da, plazan.
- **GOIZ ERESIA.**  
Izarraitz Txistulari taldea eta Biasteriko dultzinariak. 09:00etan.
- **ZEZENEN AUKERAKETA.**  
Arratsaldeko zezenketarako zezenen aukeraketa. 13:00etan. Zezen-plazan.
- **HAUR JOLASAK.**  
16:00etan. Plazan.
- **ZEZENKETA.**  
Toreroak: Luis Miguel Encabo, Antonio Barrera eta Serafin Marin. Ganadutegia: Guardiola Fantoni. 18:00etan. Zezen-plazan.
- **KALE JIRA.**  
Oria txaranga. 18:30ean. Zezen-plazatik irtenda. Txaranga, Olazko Amaren Plazan.
- **ERREMONTA.**  
San Inazio Erremonte Txapelketako finala. 22:30ean. Izarraitz pilotalekuan.
- **SUZKO ERROBERAK.**  
Zamorano Caballer su etxea. 23:00etan. Loiolabiden.
- **KONTZERTUA.**  
Ken 7 eta Nuke. 23:30ean. Plazan.
- **DANTZALDIA.**  
Gozategi. 23:30ean. Olazko Amaren Plazan.

## ABUZTUAK 3 (igandea)

- **TXARANGA.**  
Sugarri txaranga. 03:30etik 07:00etara.
- **ZEZENA.**  
Zezena. 07:00etan. Plazan.
- **JAIEI AMAIERA.**  
Suziri eta danbatekoekin 2003ko San Inaziyuen amaiera. 10:00etan. Plazan.

Zeuen ekitaldiak-eta Uztarriara helarazteko aukerak:

- Julian Elorza Hiribidea 4, 1.a ezkerria (Azpeitia)
- 943 - 15 03 58 telefonoa / faxa
- uztarria@topagunea.com



# Ainara Betegi

herri bazkariko kidea

«Zer hobeto, festetan, herritar orok parte hartzen duen bazkaria baino»

**Ion Aranburu** / Ainara Betegi duela lau urte hasi zen San Inaziyuetan egiten den herri bazkarira joaten. Aurten ere han izango da, baina beste urteetan bezala ezingo du plazan bazkaldu, herri bazkarian lan egin beharko duelako.

• **Zergatik joaten zara herri bazkarira?**

Herritarrak benetan parte hartzen duten ekintza bat delako, hasi antolakuntzatik eta bazkari egunera arte. Prozesu osoan zehar parte hartzeko eskubidea dugu. Horrez gain, jende asko gerturatzeko da eta oso ekintza parte-hartzailea da. Zer hobeto festak ospatzeko herritar orok parte hartzen duen bazkaria baino. Pena da hara hurbiltzen den jende gehiena gaztea izatea.

• **Zer iruditzen zaizu?**

Askok gustatzen zait. Era horretako bazkarietan herritarren gehiengoak parte hartu ohi du, benetan herri bazkari majo eta euskaldunak izaten dira. Azpeitian oraindik ez da lortu herritarren gehiengoa bazkaltzera joatea, baina, hala eta guztiz, oinarri horietan antolatutakoa dela iruditzen zait.

• **Zein da zuretzako San Inaziyotako gauzarik onena?**

Nire iritziz, San Inaziyuek pertsona zehatz batzuentzat antolatu ohi dira. Baina horri aurre egiteko beste egitarau alternatibo bat kaleratu ohi da. Niretzat festa alternatibo horretan dauden



ION ARANBURU

ekintza horiek dira, batez ere San Inaziyu bigarrengoko herri afaria eta goitibehera txapelketa.


• **Zer iruditzen zaizkizu San Inaziyuek?**

San Inaziyuek ez daude herritarrentzat eginda, hanka-okera daude. Horri aurre egiteko beste egitarau alternatibo bat kaleratu ohi izan da. Ez da logikoa herriko festa batzuetan bi egitarau egotea, eta hori aldatu egin beharko litzateke.

- **EKITALDIA:** Herri bazkaria • **EGUNA:** Uztailak 30 (asteazkena), San Inaziyu bezpera  
• **ORDUA:** 14:30 • **TOKIA:** Plaza • **ANTOLATZAILEA:** Festa Herrikoien Aldeko Batzordea  
• **SALNEURRIA:** langabeek eta ikasleek sei euro, besteek hamar.



— 60.000  
— 55.000  
— 50.000  
— 45.000  
— 40.000  
— 35.000  
— 30.000  
— 25.000  
— 20.000  
— 15.000  
— 10.000  
— 5.000



Euskaldunok behar dugun **berria**

jada 42.000 euro lortu dira

*Baietz 59.000 euro lortu!*

**AZPEITIAN**

Telefono zenbakia: 635 73 82 10



**datue**

**150**

harpidedun berri egin dira Azpeitian *Berria* egunkarian. Eta 450 harpidedun lortu nahi dira Azpeitian. Orain 260 erosle daude. Akzioetan 59 mila euro jaso behar dira Azpeitian eta, oraingoz, 42 mila jaso dira.

**esaldiye**

“Isiltasuna dominatzen duena da hizlari ona”

**Angel Lafuente Zorrila**  
(irakaslea)

**esaerie**

“Gezurtiak zer duen merezi? Egia esatean ez sinetsi”

**liburutik ttak**

**XABIER LETE:** “Euskaldunok Espainiako lurraldeak bisitatzeko ditugunean, ohitura dugu deitura jenerikoa ezartzeko, ‘Extremaduran izan naiz’ edo ‘Castillan izan naiz’ esanaz, horrekin lurralde horiek duten espainiar izatearen zama erruduna arinduko bagenie bezala. Jarrera horrekin, antagonista politikoa omen denaren entitate kategorizatua deuseztu nahi izaten dugu; Espainia hipotetiko baten izate bera, alegia, kontzeptu horrek espainiarrentzat adierazten duen guztia-rekin: lurralde amankomun orokorra, kondaira, hizkuntza, pertenezaren sentimendua”.

**Koldo Izagirre, Anjel Lertxundi, Xabier Lete eta Ramon Saizarbitoria** ‘Hitz lau’. *Euskaldunon Egunkariako* langileen aldeko argitalpena. 2003. urtea.

**kontue da...** Imanol Elias Odriozola (idazlea)



**ORAIN 70 URTE, EUSKAL KUTSU HANDIAGOKO JAIK**

**E**skuartearen dut 1933ko egitaraua, jaietako ekintzak bi hizkuntzetan datoz: euskaraz eta gaztelaraz. Baina agertu nahi dugun mamia, ordea, ekintza horien ingurukoa da.

Uztailaren 30ean uso tiroa 10:00etan; Udal Musika Bandaren kontzertua 12:00etan, plazan; Vista Alegre frontoian pilota partida 14:30ean (Txikuri-Aranburu, Atano II.a-AtanoVII.aren aurka); zekorketa 17:00etan; Loiolan Azken Otoitzak eta Salbea 19:00etan; azkenik su artifizialak, Udal Musika Banda, txistulariak.

Uztailaren 31an, goiz erezia, prozesioa kaleetan 09:30ean, Meza gero. 12:00etan bigarren kontzertua Udal Musika Bandak. 15:00etan, pilota partida, Ulazia eta Artazo, Peru eta Mondragonesen aurka. 19:00etan, bigarren zekorketa, eta gero bikoteka euskal dantza lehiaketa, sariak 100, 75, 50 eta 25 pezetako-

ak. Gauz su artifizialak, dultzinariak eta Musika Banda.

Hasiera bera abuztuaren batean, 08:30ean Loiolara prozesioa, han Meza ondoren. 15:00etan pilota partida Kirru eta Urzelai, Etxabe IV.a eta Altunaren aurka. 17:00etan Zirkoa eta gero, berriz, Aurreku Lehiaketa enparantza nagusian, aurrez aipatutako sari berak banatuz. Gauean, beste egunetan bezala, su artifizialak eta musika.

Abuztuaren 2an, 07:00etan txirrindulari karrera, Eusko Txapelketa. 10:00etan Gernikako Arbolaren pasealekuan, bertsolariak, herritarren arteko pilota partidak eta abar Frontoi Txikian. 12:00etan, aizkolariak plazan. 15:00etan Vista Alegre frontoian, Etxabe V.a eta Aranburu, Txikuri eta Etxaniz I.aren aurka. 17:00etan zezen jaialdia herritarrentzat Lasturko zezen-

**garai bateko Azpeitiye** ...Julian Arruti kontatua

**Egurrarekin lanean**

Julian Arrutik ondo daki egurrarekin lan egitea zer den, gazte-gaztetatik hasi baitzen arotz lanean

**Ainitze Oruesagasti**

**A**rotzgintzarekin eta, batez ere, egurlanarekin lotura handia duen herria da Azpeitia. Ingurura begiratu eta egurlanean zenbat lantegi eta fabrika aritzen diren ikusi besterik ez dugu. Lotura hori, ordea, ez da gaurkoa; izan ere, Julian Arrutik dioenez, “herrian aspalditik errotua dagoen lana da egurra lantzea”.

Egun gazteak beharrezko ikasketak egin arte lanean hasten ez badira ere, gure aiton-amonak gaztetatik ekiten zioten lanari. “Ni hamahiru urterekin sartu nintzen langile tailerlean, baina umetatik ibili izan nintzen han”. Haren aitaren izena zeraman lantegian hasi baitzen Julian lanean: Fabrica de Andres Arrutin.

Arotz lanean urte asko eman dituen arren, ondo gogoan du lanean lehenengo aldiz izan zuen istripua. “Bederatzi urte nituela, zepiladorekin eskua harrapatu nuen —dio Julianek—. Harrezkero, istripu eta susto ugari izan

ditut lanean, nire eskuetara begiratu besterik ez dago...”. Bai, bai.

Lantegian umetatik ibili izanak ofizioa azkar ikastera eraman zuen. “Umea nintzela, soldadutzatik etorri berria zen langile bati makinek nola funtzionatzen zuten erakutsi beharra izan nuen”.

Nahiz eta badiren urte batzuk erretiroa hartu zuela, oso ondo gogoratzen da nolakoa izaten zen lanegun bat: “Lan gogorra zen. Batzuetan, egur tabloiak bizkarrean hartuta ibili behar izaten genuen. Hala ere, niretzat gogorra, zuhaitz enborrak ekartzen zirenean egin beharreko lana zen. Zuhaitz enborrak hartu eta zerratu egin behar izaten genituen, gero tolestu edo *castillotan* jarri, egurra ondo lehortzeko. Lan hori koadrilan egiten genuen, elkar lagunduz; tailerreko dozena bat langile izaten ginuen”.

Oraingo lan egiteko modua probatu ez duen arren, “erabat ezberdina” dela dio Julian





1910etik 1956. urtera arte Azpeitiko festetan ibili ziren erraldoi eta buruhandiak. / 1972ko JAIEEN ESKUPROGRAMA

● **ALDEA.** 1933an herri jaietako egitarauan eskaintzen ziren ekitaldien artean eta gaur egungo egitarauaren artean bada alde nabarmenik

koekin. 18:30ean, gaztetxoan txirindulari karrera. Gauean, suak, eta Gernikako Arbolen pasealekuan dultzinari eta Musika Banda.

Bada alde nabarmenik gaur egungo Herri Jaietatik. Esku programaren neurrian lehendabizi, eta barnean eskainitakoan gehiago.

## abizena

### LANDA

● **Esanahia.** Soro, sail, belardi, zelai.

● **Armarria.** Urre kolorez, bi otso gorri ibiltari. Kolore gorriko bordura, urre koloreko zortzi gurutzerekin.

● **Abizenaren kokapena.**

- Azpeitia.
- Azkoitia.
- Arrasate.
- Ataun.
- Elorrio.
- Bilbo.
- Tolosa.
- Markina.
- Etxebarria.
- Mungia.
- Gatika.
- Maruri.

● **Abizenaren hedapena.**

- Azpeitia (1791).
- Azkoitia (1818).
- Albistur (1655).
- Beizama (1598).
- Tolosa (1605).
- Ordizia (1744).
- Elorrio (1575).
- Bilbo (1733).

'www.paisvasco.com/heraldica' webgunetik hartua dago.

## komunikabidiek

### 'GARA' NOLA IXTEN DUTEN BEGIRA?

Ezpata muturren aurrean du *Gara* egunkariak. Jakina, Espainiako Estatuak jarri dio, honelaxe: *Egin*-en enpresa argitaratzailearen zorra ordaintzea exijituta; denera, 5,1 milioi euro. Ez du ez buru ez hankarik, baina hori da errealitatea. 1998an *Egin* itxi zuen Espainiak, 2003an *Egunkaria*. Orain Euskal Herriko beste egunkaribat nola ixten duen begira egon behar al dugu? Edo mugitu beharra dago?



Egur lanean arotz bat.

“ Lana asko erraztu da, orain gauza asko eginda ekartzen baitira”

**Julian Arruti**



Arrutik. Urte hauetan zehar teknologiak egin dituen aurrerapausoak oso nabarmenak dira eta arotzek ere makinei dagokienez aldaketak nabari dituzte.

**LANA ERRAZAGOA.** “Lana asko erraztu da”, haren ustez. “Orain gauza asko eginda ekartzen dira. Guk eskuz lan gehiago egiten genuen, makinak ere gutxiago genituen, eta horrek eskuz egin beharra suposatzen zuen”, kontatzen du Julianek.

Orain opor garaia dela eta, zera dio: “Guk oraingo langileek izaten dituzten oporren erdiak baino gutxiago izaten genituen”.

Arotzaren lana gogorra dela badio ere, ez dio lanari erabat utzi. “Ez ditut altzari handiak egiten baina oraindik gauza txiki batzuk egiten ditut. Ofizios arotza izan eta denbora-pasan ere egurrekin aritzen naiz”.




**gertuko pasadizue**

**EUSKARAZ  
ESMOKINAREKIN**

● **RAMON SAIZARBITORIA:** "Oroitzen naiz beste behin, Azpeitian esango nuke, nola emakume batzuk, Arthur Miller-en *Denak nire semeak* ikusi ondoren uste izan zuten gaztelaraz antzeztu genuela. Pentsatzen dut neurri batean gure euskara, gaztelera bezala, arrotza egiten zitzaielako izan zela, baina are gehiago ez zitzaielako burutik pasatzen esmokinez eta plan horretan jantzitako jendeak euskaraz egin zezakeenik. Baina esaten dizut, alor guztietan, kontua zen erakustea euskal kultura modernoa zela".

'Bost idazle. Hasier Etxeberriarekin berbetan'-etik hartua. Alberdaniak argitaratua. 2002. urtea.



**liburue**

**MEZU  
ERASOKORRAK  
LIBURUAN**

Abertzaletasunaren, euskararen, euskal erakundeen kontra, azken batean Euskal Herriaren kontra Espainiatik —batik bat 1998tik— zabal-tzen diren mezuak bildu eta liburua argitaratu berri du Zumalabe Fundazioak. "Dena programatuta dago, ikusten ari garelako iragartzen zuten informazioa betetzen ari dela. Horregatik oso garrantzitsua da buruak aktibatzea", zioten Zumalabeok aurkezpenean.

**osasune** Julian Bereziartua (medikua)



**BERROA EDO ERREKA-BELARRA**

● **IODOA.**  
Berroak  
iodoa  
eta C  
bitamina  
du

**L**andare honekin entsaladak egiteko ohiturak jarraitzen du oraindik ere. Mendiko iturrien inguruan izaten da gehienbat eta baita ur garbi eta korrontearen inguruan ere. Landatu ere egiten da. Kantabrian, Picos de Europen, Alto Campooko eski pistetatik gertu, *akerraren iturrian*, berro biltzen ikusi dut jendea.

Hosto berde, leun eta haragizko landare iraunkorra da. Kimu berriak bakarrik balio dute jateko eta berezko zaporea galdu ez dezaten, gutxi zatitu behar dira; batzutan, zapora horrek ziaparena gogorarazten digu bere min puntuarekin. Entsaladan jaten da batik bat. Orburu edo eskarola bezala, berdura mikatza da.

Sendagileok badakigu, jangarri mikatzak txistua eta sabeleko zukuak gehitzen diruztela; hau da, aperitibo gisara portatzen direla, liseriketa prozesua martxan jarriz, nahiz eta pertsonen arabera, ezberdin izan portatera. Bestalde, kontuan hartzeko moduko balioak ditu berroak: iodoa eta C bitamina.

Bronkitis arina eta azaleko gaitzak sendatzeko eraginkorra da. Diuretikoa izatea ez da harrizkoa, gluconasturcina baitu, elementu eraginkor gisara.

Bada beste berro mota bat gure pagadietan dagoena, baina gastronomiaren aldetik garrantzi txikiagoa du; propietate berak ditu baina gutxiago.



**kutxa**

gizarte ekintza

**Biele**







**BEHERAPENAK  
%50a ARTE  
AZKEN EGUNAK!**

**DESS**

SOMIERRAK SOFAK SILOIAK KOLTZOIAK ARMAIRUA

**ATSEDENAZ JAKITUNAK**

KIROLDEGI AURREAN GAUDE

**24 HILABETE %0 INTERESA**

**A Z P E I T I A**

HARZUBIA HIRIBIDEA, 51

TEL./FAX 943 15 14 41

**SOFA BEHAR BADUZU, BISITA GAITZATZU**

**Tuko**

LAGUNTZA TEKNIKOAK



**ADIN NAGUSIENTZAKO  
ETA**

**EBAKUNTZEN ONDORENGORAKO  
ALTZARIAK**

- ✓ OHE ARTIKULATUA
- ✓ ESKAREN KONTRAKO KOLTZOIAK..
- ✓ BAINUGELAN EGOKITZAPENA
- ✓ ESKAILERAK IGOTZEKOAK...
- ✓ GURPILDUN AULKIAK



HARZUBIA HIRIBIDEA, 51

TEL.: 605 / 707984





**EDERTi**

APAINKETA - DECORACION

*Enparan 10,*

*Tfona eta faxa. 943.81.16.74*



- ★ Arropak
- ★ Oinetakoak
- ★ Kotxeak eta sehaskak
- ★ Haurrentzako tresna guztiak
- ★ Zenbait opari eta abar luze bat



Perez Arregi  
Tlf 943 81 69  
20730 Azpeitia  
Gipuzkoa

*ondo pasau sarinazi guk!*



Fotógrafo  
Bideo Digital Produksioak

Argazkigintzarako materialaren salmentak

Argazki estudioak

Gizarte eta Industria erreportaiak

Bideo produkzio-etxeak

Irudiaren tratamendu digitalak

Olazko Amaren Plaza, 5  
20730 AZPEITIA (Gipuzkoa)

Tel. Fax: 943 815 142  
angelargazia@hotmail.com





Frantziako Tourrea mendian gora lehenena, Eddy Merckx handia, eta haren atzetik, aurrena, Santi Lazkanon. / IOSUNE ORBEGOZO

# EHUN URTE, AZPEITIKO BAT

Frantziako Tourrean Azpeitiko txirrindulari bakarrak parte hartu izan du: Santi Lazkano zenak; lau aldiz

**Nerea Uranga**

**A**urten bete dira ehun urte Frantziako Tourraren lehen edizioa egin zena. Badira urteak, baina denborale horretan Azpeitiko txirrindulari bakar batek baino ez du parte hartu: Santi Lazkano zenak. Lau alditan korritu zuen Tourrean: 1969an, 1973an, 1975ean eta

1976an. 1973an ibili zen ondoen, 29. bukatu zuelako. Afizionatuetatik profesionaletara igo eta hurrengo urtean irten zuen Frantziako txirrindularitza proban lehen aldiz.

Xebaxtian Elorza azkoitiarra Lazkanorekin batera ibili zen, talde berean: Kas-en. Baina ez zuten biek batera inoiz korritu Tourra. Elorza bost alditan izan zen, 1968 urtean azkeneko aldiz; Lazkano zena gazteagoa zen. "Biok Tourra elkarrekin korritu ez

baguenen ere, elkarrekin asko ibili ginen, bestelako karrera txikietan eta", dio Elorzak. Garai hartako Tourrak gogoan, "luzea-goak" zirela dio. "Igoal 1.300 kilometro gehiago ziren, jan antzekoa egingo genuela uste dut, baina gaur egun bezala medikuak-eta ez genituen gainean. Beste aldeia, zera: gaur egun bezala edaria motoan edo autoan ondora etorrita ez zigutela ematen. Geuk topatu behar izaten genituen iturriak edo, bestela, taberna bat topatuz gero, barrura sartu, edaria hartu eta *lapurreta* egiten genuen; garai hartan ohikoa zen". Tourreko istorioak. ●





# TABERNAK: GERO ETA GUTXIAGO

Taberna asko ireki zen garai bat izan zen Azpeitian. Orain jabez aldatu nahian dabilta bat baino gehiago, errentan edo saltzen jarritz

**T**abernako lanak antzeman du nekeza dela. Urte batzuk pasatu ondoren nekatu egiten da jende gehiena, eta taberna uztea ez da hain gauza arraroa. Beti egoten da tabernaren bat eskualdatzeko, eta bakarren batek atek betiko itxi ere egiten ditu. Azpeitia tabernen herria izaki, auzo eta txoko gehienetan aurkitu ahal da ostaturen bat, baina orain jabea aldatu nahian dabilta asko, errentan

## USTARRIREN ATSEDENA

Ustarri tabernak atek itxi berri ditu. Ez dauka historia makala, 140 urte ingurukoa. Ikasberri Azpeitiko Ikastolak hartu du orain

### Oihana Elduaian

**H**amaika malko, hamaika irribarre, eta hamaika kontu. 140 bat urte eta familia bat: Ustarrinekoak. Juan Mari Segurola Otegi (1841-1899) ireki zuen taberna, orain dela 140 bat urte. Urrestillako uztargilea zen, *Ustarri*, bertsolaria. Bereak dira *Bizkaiko txerriarenak* bertsoak. Tabernari bere izen bera jarri zion, eta joan den San Pedro egunera arte zabalik egon da, hutsik egin gabe. Orain, ordea, atek itxi ditu. Ikasberri Azpeitiko Ikastolak hartu du orain.

Hiru alaba izan omen zituen Segurolak, eta haietako bat Uzin-en batekin ezkondu. Izena galduarazi zion ezkontza hark tabernari. Segurolaren alaba hil zenean beste emakume batekin ezkondu, eta Bar Uzin antigua casa Ustarri izena jarri zion tabernari, Mari Karmen Uzinen etxeko argazki zahar batean ageri denez. Hala ere, lehenengo emaztearekin bakarrik izan zituen umeak Uzinek, eta beraz, Ustarrinekoaren alabek hartu zuten taberna gero. Haietakoren batek izena berreskuratuko

ote zuen pentsatzen du Mari Karmenek. Gero, Mari Karmenen aitak hartu zuen taberna, Nikolasek, eta ondoren Mari Karmenek berak. Orain, ordea, ezin du gehiago eman. Haren bi alabek ikasketak amaitu dituzte, eta tabernako bidea bazterrerera utzita bide berria urratzen hasi dira. Lehenago edo beranduago utzi egin behar zuen, eta oraintxe egitea erabaki du.

Taberna itxi eta astebetara ohiko garaian jokora bertara joan zenik ere bada. Atea irekitzen hasi eta bere buruari "aiba dio!, orain astebete itxi ez ziaten ba!" esan eta Mendizaletara joan omen zen. Izan ere, zaila da bitzta osoko bigarren etxera ezin dela joan buruan sartzea, edo hankei bide berriak egin behar dituztela jakinaraztea.

Hamaika pasadizo gertatu dira bertan, eta herritar bat baino gehiagoren bigarren etxea ere izan da urte askoan. Mari Karmen-eta gazteak zirenean, jaten ematen zuten han. Ama Xeberik esku ona zuen nonbait, eta izugarritzko kazulakadak jartzen zituen, egunero-egunero. Tripakiak saltsan ziren jateko preziatuena. "Eibartik eta dena etortzen ziren tripakiak jatera

—dio Mari Karmenek—, inoiz ez genuen nahikoa ipintzen. Herriko harakin guztien tripakiak erosi, prestatu eta, hala ere, alferrik, norbait gogoarekin geratzen zen beti".

Lagun Onak-eko futbolariaren egoitza ere izan zen Ustarri, *Kanpilo* presidente zen garaian. Jangelan egiten omen zituzten bilera, eta partida aurretik han kontzentratu. Gainera, ondo zaintzen zituen etxeko-andreak: atsedendian indarberritzeko kafea prestatzen zien, baina hori bai, Terry "pixka bat" eta azukre "mordoa" botata.

### NEGARRA IRIBARRE BIHURTUA.

Ondraetxeak egiten ziren garai batean. Hildakoaren familiak hiletara gerturatutakoei bazkaria ordaintzen zien, penak ahazteko edo. "Jende mordoa biltzen zen, goiko jangela leporaino beteta". Gehienak buru-makur eta triste sartzen omen ziren, baina paella eta txuleta jan eta eztarrian behera pasatzen laguntzeko edandakoekin irribarrez egiten omen zuten kanporako bidea gehienek.

Geroago jaten emateari utzi egin zioten. Aita Nikolas hil zenean utzi ere, 1976an.



edo salgai jarriz. Egoera horretan, orain, Ustarriz gain, gutxienez, bost taberna daude.

● **BAIOLEGI:** Axun Manzisidorrek ireki zuen taberna bere garaian. Gero, uztea erabaki eta Nekane Imazek hartu zion. Orain, taberna uztea erabaki du Nekane, "jenderik ez dagoelako, eta, gainera, alokairua ordaindu behar delako". Orain, Axunek irekiko du berriro, San Inazio egunean, Nekane bere azken eguna egin ostean.

● **EDUISA:** Taberna ireki zuela badira hamabi urte, eta orain, "nekeagatik" itxi egingo du Isabel Berasategik. Egunero-egunero "ordu pila bat dira taber-

nan", eta ezin du "gehiago". Ez du tabernaren alokairuarekin negozioa egiteko asmorik, "soldata bat" besterik ez du eskatzen. Lokala orain dagoen moduan ireki nahi du, eta norbaitek beste zerbaiteko erabiliko lukeela esango balio, "begiratu egin beharko" lukeela dio; lizentziak eta abarrek gora-behera handiak ekartzen dituztelako. Isabelek taberna uztea erabaki zuenean lokalean beste zerbaitek irekitzea pentsatu zuen, baina "lizentziak-eta lortzea oso zaila da", dio. Interesatuak deitu 943 15 00 57 telefonora.

● **LOREA:** Lorea tabernak atek itxi ditu, betiko. Alokairuan hartua zuten hiru lankidek, eta Fer-

min Zabala bazkideetako batek dionez, "tabernak ez zuen hainbesterako ematen". Beraz, taberna utzi egin zuten, eta lokalaren jabeak saldu egin zuen. Orain, aldameneko arrandegiak hartu du, beraien negozioa handitzeko.

● **OSINAZPI:** Sanjuandegiko tabernak jabez aldatu nahi du. Ines Azpiazuk hamabost urte daramatza tabernan. "Jada 60 urtera noa, eta nire seme-alabetako inork ez du jarraitu nahi". Beraz, utzi beharrean aurkitzen da. Besteren bati utzi nahi dio, alokairuan, baina "ez da inor agertzen". Norbait agertu zain dago, ixteko. "Orain itxiko banu, eta gero berriro ireki, lege be-

rrietara egokitu beharko nuke taberna, eta hori asko kostatzen da. Dagoen bezala prestatuta egonez gero, itxi beharra pena da". Interesatuak deitu: 943 81 65 96 telefonora.

● **USTARRI BODEGOIA:** Tabernak asko nekatzen duela dio Begoña Albisuk. "Urte asko daramagu bodegoiarekin, eta jada nekatu ere egin gara". Alokairuan dago duela urtebetetik, baina ez zaie inor agertu. "Taberna hau tratua egin eta hurrengo egunean irekitzeko moduan dago, prest", dio. "Osasun Sailak ipinitako arau guztiak betetzen ditugu". Taberna alokatu nahi duenak 943 81 64 74 telefonora dei dezake.



Egunero-egunero jende bera ibiltzen zen Ustarrinean, jokoan. / MIGUEL IRIARTE 'MIGELITO SARRALE'

“Eibartik eta dena etortzen ziren gure etxera tripakiak jatera, inoiz ez genuen nahiko ipintzen”

### Mari Karmen Uzin


(Ustarrineko etxeoandrea)

Hori bai, krocketak emateari ez zioten inoiz utzi.

Oraindik ere bazuen bertako koadrila Ustarririk. Jokoan egunero jende bera ibiltzen zen, eta asteburuetan txapelketak egiten zituzten. Larunbatetako koadrila ere baze goen. "Jose Garin eta Sabin Laztola-eta larunbatero etortzen ziren —dio Mari Karmenek—, jaten ematen genuenean afaltzera, eta gero kafea hartzera". Etxekoak ziren, beraz.

**TELEBISTAREN ERREGE.** Iñaki Pipas 'telebistako mandoaren gizonari' baino ez zion erakutsi Arrietanekoak telebista berria nola erabili. Izan ere, Pipas zen Ustarrineko telebistaren jauna eta jabe. Tabernan zeuden beste hogeit hamar lagunek beste zerbaitek ikusi nahi bazuten, izorrai! Iñaki Pipas-ek agintzen zuen han, ez zegoen besterik, ez. Jokoan egoten zen jendea builan hasten bazen —"tranpa egin duk! Keinua bota diok!"—, Pipas bera nagusi. Mandoa hartu eta bolumentara topera igotzen zuen. Alferrik zen hari buila egitea. Bera aspertutakoan baino ez zuen jaisten telebistaren ahotsa. Ustarrinean beti. 140 urteko tabernan. ●





argazkilaye: Miel Anjel Elustondo

## Nuarbetarrak 25 urtean Tourrean

● **25 URTE.** Txirrindularitzarako afizioa Nuarben ere bada. Aurten 25. urtea izan da nuarbetar batzuk osatutako taldetxoa Frantziako Tourrera joan dena. Miel Anjel Elustondo azpeitiarra ere hainbat alditan joan da koadrila

horrekin Tourrera. 1984an izan ziren aurrenekoz, Alpeetako etapak ikusten. Han ibili ziren lau egunetan Rocheteko krono-igoeran, Madeleinen eta Alpe d'Huezen. 25 urtean animatzen. Eta argazkiak ateratzen; hemen batzuk.







### 1. LAINOPEAN.

Luz Ardiden igotzen ari dira. Laino artean Pello Ruiz Cabestany txirrindularia.

### 2. GOROSPE.

1984ko Tourrean Joxemiel Iriondo *Larraña(ga)*-k lagundu zion Julian Gorosperi Madeleine mendia igotzen.

### 3. FEDE ETXABE ANIMATZEN.

Luix Mari Gurrutxaga eta Joxemiel Iriondo txirrindularitzaren eta Etxaberen zaletu.

### 4. SUKALDARIA.



Joxe Mari Agota, taldeko sukaldaria.

### 5. ARROPAK JASOTZEN.

Xexilio Alegria eski estazio-ko postetik arropa lehorrak jasotzen.

### 6. HINAULT.

Kilometro bat falta zaio Bernard Hinaulti helmugarako. Orduan ez zebilen gaur egungo jendetzarik.







7



8



9

**7. DELGADO.**

Luix Mari Gurrutxaga Pedro Delgado animatzen. Tour hartantxe hasi zen pizten Delgado.

**8. DODOTEAREKIN.**

Urteak pasatu eta hazi egin zen Tourreko taldea; *Doro-tea* furgoneta ere txirrindulari porrokatu bihurtu zen.

**9. ZAIN.**

Txirrindulariak pasatzeko zain Alpe d'Huezeko etapapan Luix Mari Gurrutxaga, Xexilio Alegria eta Joxemieli Iriondo.





# CINEMA PARADISO

**N**on gorde daitezke ametsak? Ezin dira edozein ontzitan sartu, gero, beharrezkoen bihurtzen direnean, berreskuratzeke. Ametsak helezinak direlako baitira amets. Zeruko izarrak bezala. Haizearen xuxurlen moduan.

Hala ere bada ametsak non sortu. Non sartu. Ametsen kutxa, ametsen fabrika... Zinema jaio zenetik bertatik eskuratu zuen halako sorgintasun ukitua. Zeluloide-istorioak ez ziren narrazio antzuek. Hainbaten eta hainbaten ametsak erein zituzten urteetan. Oraingoak ez diren beste urte batzuetan.

Ikusi duzue *Cinema Paradiso* filma? Batzuek gogoratuko duzue, seguru. Duela 15 urte inguruko da. *Cinema Paradiso*-k geure ametsen sorkuntzaren inguruan dihardu. Bigarren Mundu Gerra amaitu berri da, eta bizimodua ez da batera erraza. Filmak mutiko gazte bat dauka protagonista nagusia: herriko zinemak erabat liluratuta dago. Beste protagonista ogi-puska bat da: herriko zinema-aretoa film-proiektagailuaz arduratzen den gizona (Philippe Noiret-en antzezpena ezin biribilagoa da; ikaragarria). Mutikoak proiektagailuaren alboan igaroko ditu orduak eta ametsak, hamaika filmen arnasa ezkutua entzunez.

Film osoari xarma izugarria dario, zinismo edo maltzurkeriarik gabea. Gizakion itsukeriez hitz egin behar duenean ere, samurtasunez egiten du: herriko apaizak, adibidez, filmak herritarrentzako igorri aurretik, ikusi eta epaitu egiten zituen, zentsura lanetan aritzeko. Musu oro debekatzen du, esaterako, gainontzekoen desilusiorako. Ezin omen baitu, apaizak, horrelako *pornografia* onartu. Hala ere, esan bezala, film alaia da... ia. Ia, aurrera doan heinean herriko zinemaren galtzea ikusten baita.

Zinemak liluratutako mutikoak herritik alde egingo du urte askoan, eta zine-zuzendari ospetsua bihurtuko da. Txikitako lekura itzultzen denean, proiektagailuko lagun-minaren ehorzketara joateko, *Cinema Paradiso*-ren gorpuzkia ere aurkituko du han, modernitatearen presioak akabatua. Mutikoa zenak ezingo du ezkutatu nostalgia, beste garai bateko amets bizia.

Gurean ere, antzekoa gertatu da, itxura denez. Zelaitxo bota zuten jada. Soreasu ere, jende falta zela-edo, itxi egin da. Badira zurrumurruak zinema-areto berriak zabalduko dituztela, txikiak eta modernoak (egia izango da, espero; Azpeitia bezalako herri bat zinemarik gabe...). Nostalgia nostalgia, hori bai, ezingo dugu ahaztu zein deserosoak ziren Azpeitiko bi zinema-aretoen aulkia, zein kaskarra

## NOSTALGIA.

Denboraren  
hegoen  
gainen,  
nostalgia  
hegan

bozgorailuen kalitatea! Baina hala ere, hala ere, galdutako ametsen zaporea gelditu zitzaidan jakitean bi aretoak, *betikoak*, itxita zeudela. Gu ere, gutako asko, *Cinema Paradiso*-ko mutikoa bezala, horma pitzatu haien azpian hazi baikinen hein batean.

Zergatik nago nostalgiak hain jota? Beharbada, agurtzeko ordua ere iritsi zaidalako. Lau urte dira jada (hainbeste?) Uztarrria aldizkariko itsasertzean porturatzen, eta orain, denboraldi baterako behintzat, agur esateko unea etorri da. Urrutira joateko garaia ere iritsi zait gainera, bolada luze baterako. Ez ote zait filmeko mutikoari bezala gertatuko, alegia bueltatzean dena ezezaguna egitea? Litekeena da, hainbeste obra, saihebidetako edo errotonda berriekin... Azkoitiko kiroledegi aurrekoa bezalakoak ez dira izango, behintzat! Zaindu herria. Eta hurrengora arte, hortaz. Ez adiorik.





## Eli San Sebastian

Albaitari Espaiñien

### Zaragozari begiratue



- Espaiñien dago, ipar-ekialdien.
- Zaragoza, Aragoiko hiriburue da.
- 600.000 biztanle ditu eta 1.060 kilometro karratu dauzke.
- Hizkuntze ofiziala: espainola.
- Gehiyenguek industriyen egiten du lana. Industriyen lan egiten duen gehiyengue, berriz, Opel kotxien enpresan ari da.
- Erljiyo nagusiye katolikue da.

# “Eguraldi freskue ez det baterere faltan botatzen”



Eli San Sebastian ezkerretik eskuinera bigarrena da. / ELI SAN SEBASTIAN

**A**zpeitire egun batzuk pasatzera etorri zan Eli San Sebastian uz-tailien. Zaragozara albaitaritzza ikasketak egitea jun eta hamar urte damazki han bititzen.

#### ● Zer moduz Zaragozan?

Ondo, hango egin da. Lagun batek aurrereko batien hala esan zien, espainolez hitz egiten nuenien esaldi batzuk *mañoz* esaten nituela.

#### ● Albaitari bezela ari al zera lanien?

Bi urtez hango herri batien albaitari lanien jardun det klinika batien, txakur eta katuekin egin det lana batipet. Baite txerriyekin ere, lan asko egin det; gutxiyean, ordie, azken hauek gustatzen zaizkit lanerako, baiño han asko dago.

#### ● Zeatik ez zaizkizu ba txerriyek gustatzen?

Fakultadien ere gutxi ikasten da txerriyei buruz. Baiño neu izetez nahiko ausarta naiz eta hortan ere jardun det. Behiyek eta ardiyek dire gehiyen gustatzen zaizkitenak lanerako; baserriko kontue.

#### ● Zaragozatik Huescako herri txiki batera jutekoe omen zera laister?

Bai, Riglos ingurure, Aierbera jungo naiz. Nahiko politte da eta mugimendu asko dago, gazte jendie eta.

#### ● Nolatan?

Zaragozan auzo batien bizi naiz, hasieran haundiye egiten zitzetan baiño ohitu egiten zera. Azken urtietan, ordie, Zaragoza hiriye bera asko hazten ari da eta nahiko desatsegina da. Uste det herri txikire ondo ohituko naizela, bazterzalie gera eta.

#### ● Euskaldun asko al dao Zaragozan?

Bai. Euskaldun asko bizi da Zaragozan. *Pottoka* izena dauken taberna euskaldun bat ere badago. Albaitari ikasle euskaldun pillie dago. Jazkerieatik segituen antzematen da euskaldune zein dan.

#### ● Zer botatzen dezu faltan Azpeititik?

Koadrila bat badaket Zaragozan; danak kanpokuek gera. Baiño, hala ere, lagunek, ezagunek, herriko girue faltan botatzen dire. Familiye, etxeko jaleue ere faltan botatzen da. Hori bai, eguraldi freskue ez det baterere faltan botatzen.

Ainitze Oruesagasti

**HANGO JENDIE.** “Danetik dago, baiño orokorrien jende jatorra eta irekiye da. Toki askotako jendie dago Zaragozan eta horregatik akaso da holakue”






Ondo pasatu festak!







Santi Lazkano Kirolak - arropak, oinetakoak, motxilak eta bestelakoak

**Babesu**  
gazte moda

%50eko  
**BEHERAPENA**

**DESBERDINDU ZAITEZ!**  
BAITA SAN INAZIOETAN ERE

Xanjuandei auzuen gatxauden! Urbitarte, 9 ♦ Tel. 943 15136